

**AITA SANTI ONAINDIA *eta***  
**ALFONTSO IRIGOIEN *ber-***  
***tsogintzaren lekuko***

BILBAO BIZKAIA KUTXA  
Bilbao

EUSKALERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA

**AITA SANTI ONAINDIA *eta*  
ALFONTSO IRIGOIEN *ber-*  
*tsogintzaren lekuko***

BILBAO BIZKAIA KUTXA  
BILBAO  
1993

© Los trabajos de sus autores  
y de esta edición, Bilbao Bizkaia Kutxa

ISBN: 84-8056-030-4  
Depósito legal: BI-2560-92

Fotocomposición: IPAR, S.C.L.  
Particular de Zurbaran, 2-4  
48007 Bilbao

Fotograbados: CROMAN, S.A.

Imprime: A.G. RONTEGUI, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4  
48950 ERANDIO (Bizkaia)

## AURKIBIDEA

9

*José Antonio Aranburu*  
GIZALEGEZKOA BAIT ZEN

11

*Jon Enbeita*  
AITA SANTI ONAINDIA ETA  
ALFONTSO IRIGOIEN

13

*Luis Baraiazarra Txertudi*  
EUSKAL LETREN LANGILE ASPERGAITZA

31

*Xabier Amuritza*  
AITA SANTI ONAINDIA,  
bertsozale eta *azterzaile*.  
«NI HILTZEKO SASOITIK PASATUTA NAGO»

43

*Anjel Zelaieta*  
ALFONTSO IRIGOIENEN POEMAGINTZA  
*Orbel eta orri-ren azterketa*

73

*Xabier Amuritza*  
ALFONTSO IRIGOIEN,  
*gerrosteko txapelketen eragilea*  
«IA DEN-DENA NEUK EGITEN NUEN,  
BAINA EZ ZEN HAIN ZAILA ERE»

85

*Jon Lopategi*  
BERTSOAK

## GIZALEGEZKOA BAIT ZEN

«Baduk/n ohitura BERTSOLARI EGUNA dela eta bertsolarien bat omentzekoa; azken urteotan, bertsozaleren batzuk ere izan dituk/n halako egunean goraipatuak izan direnak ...»

Hala izan bada, hala izan bedi, eta Nafarroatik heldu zaigu lekukoa Bizkaira. 1993ko BERTSOLARI EGUNA dela eta bizkaitar bik jasoko dute bertsolari eta bertsozaleon goratarrea.

-Bizkaian? Nor baina?

-Zer, bada? Badira Bizkaian sua eta txinpartak atera dizkietenak bertsogintzari!

Bilbotarra, asfaltokoa, bata; Amorotokoa, baserrikoa, bestea: Alfontso eta Aita Santi; besteak beste!

Plazarik plaza, herririk herri ibilitakoa, Euskal Akademiaren aginduz, Irigoien jauna. Berak -eta bakar antzean- mugitu zituen urteetan bertsolarien txapelketen hariak; aldi oso-oso batean.

Liburu artean ibilia bestea; Amorotoko inguru zabalak utzi eta Larrako ormak testigu zituela landu, aztertu eta orriratu zizkigun hainbeste sekretu.

Bihoakie gure esker ona euren lanagatik bizkaitar bioi, gizalegezkoa bait da.

Begien aurrean duzuen liburutxoak ez da besterik, horixe baino: omenezko ahalegin txiki bat.

Ahalegin honetan aparteko lankideak izan ditugu; Xabier Amuritz, Luis Baraiazarra eta Anjel Zelaieta lagunek bi bertsozaleon zenbait ekintza eta ibilera jarri dizkigute agerian. Eta nola ez?, hasiera-amaierak bertsoz hornitu behar! Horretan Bizkaiko eta Euskalerriko bertsolari txapelkun areatzarrak ipini ditugu: Ion Enbeita eta Ion Lopategi.

Era berean urgazle eta bidaiari lagun izan dugun bizkaitar erakunde gorenari -FORU ALDUNDIARI-, gure erreko- nozimentua azaldu nahi diogu eman diogun laguntzagatik.

Azkenik BBK-ren partaidetza ere ezin ahaztu, berari esker plazaratu delako dokumentu hau. Mila esker!

Zuoi, Aita Santi eta Alfontso, agur eta ohore!

*Jose Antonio Aranburu*  
Araba-Bizkaiko Bertsolarien Elkarte

## AITA SANTI ONAINDIA ETA ALFONTSO IRIGOIEN

Bertsolaritza arrisku bat zen,  
bakardade ta ikara  
gazte bizkor bat, gazte ausart bat  
jalgi zenean plazara  
txapelketaren hegal azpian  
«mezenazgoen» gisara  
eragozpenei aurre emanik  
bertsoa zuen atara  
lagun Alfontso, zurekin beti  
zorretan izango gara.

«Euskotarra naz» erantzun zeuntsan  
etsaiari gerratean  
euskera eta euskal kultura  
zabalduta hainbat urtean  
bertsoak leku berezia dau  
zure liburu tartean  
larogei urte eta oraindik  
gazte baten aldatuan  
nik, aita Santi, ez dakit zelan  
eskertu bertso batean

Alfontso-Santi, Santi-Alfontso,  
ohore eta gorespen!  
euskaldun oro datoz nirekin  
bioi bertsook abesten  
ondo egina, goiz edo belu,  
herriak bait du miresten  
zuen hiztegi haundian nola  
«jubilatu» hitza ez den  
esperientzi horrekin jarrai  
ondorengoak babesten.

*Jon Enbeita*

## **EUSKAL LETREN LANGILE ASPERGAITZA**

Amoroto eta Larrea aldera begira nago. Bata sehaska, bestea bizileku. Bizkaiko txoko polit horiek aipatu eta bat-batean antzemango zenuen Santi Onaindia dudala mintzagai.

Luma hartu eta *Oroi-txinpartak* liburuan barneratu naiz. Baina amorotoar honen bizitzak oihan joria dirudi: altxor bete-betea, aberatsa, oparoa eta atsegina aurkitu dut. Hala ere zirt edo zart egin behar, zehar-meharka eta hara-honaka bidean gal ez nadin.

Santi Onaindiak goi-goian du tokia euskal idazleen artean. Euskal kulturaren dugun izarrik argitsuenetariko bat dugu bera. Inongo marmar ez kritika zital zorrotzek ilundu ezinekoa. Aipatutako liburu horretan, eskuetatik utzi gabe, hasieratik azkeneraino irakurtzekoak diren bere oroitzenak eskaintzen dizkigu. Nik, ordea, hartaz barnean dudana irudia neure erara eho eta gogoko zaidan haren alde atsegin eta irribarretsua ezagutzera eraman nahi nuke irakurlea.

### **Amorotoko Atxuriarte baserria**

Miloitik Oletara doan bide zabaletik, Armiña kobazulora orduko, begira ezazu ekialderantz eta hantxe, aurrez aurre, bi haitz-mokor zuriren erdian ikus daiteke Atxuriarte baserria, bi haitz zuriren artean dagoelako horrela deitua. Hantxe jaiotzen zen Santi Onaindia 1909.eko martxoaren 24an. «Bidetik urrintxu ez balego, eguzkiak txeraz ikertzen dauan leku sotil, osasuntsua» dio berak. Amorotoko elizalde edo plazatik Atxuriartera joateko hiru ordulaurdeneko bidea edo zen. Arbel-trosko ezberdinez dago bide-zati bat, gero aldats beheara, zubi kaskar bat igaro eta aldats gora azkenengo zatia. Bost neba-arrebaren habia berri gertatu zen baserri hori. Migel Onaindia Barrutia eta Jazinta Baseta Albizuri senar-emazteek bi alaba eta hiru seme izan zituzten. Ez Migel eta ez Jazinta ez ziren hangoak, ezkontzaz hara etorriak baizik. Aita Markinakoa zen eta ama Axpe-Arrazolakoa.

Baserri-giroko hainbat gauzak kilikatuko zioten bihotza mutiko honi, 1975.ean *Nire baserria* izeneko arnasa luze-ko poema idatzi baitzuen. Neguak, udaberriak, udak, amonaren heriotzeak, erleek, behiek, baserriko lanek... zintzel-kopek bezala, haren arima sentimendu gozo eta saminez markaturik utziko zuten.

### **Aitazulo**

A. Santik adeitasunez eta maitasunez aipatzen ditu bere gurasoak. Baina, oharkabean edo beren-beregi, aita jarri ohi du goi-goian. Aitarene itzala, harenganako mirespena txitean-pitean itzuri ohi zaio lumatik, haurtzaroko oroitzenak barnean eho ahala paperera goxoki isurtzen dituenean. Haurtzaroan baino gehiago mutikotan, hura du eredu, hura gidari. Ama etxe barruan isil-isilik, txiri-txiri lan eta lan aritzen den emakume on eta maratza izango zen. Halaxe zelakoan, oraingo ideia berriak ernetzeko zirelarik, senararentzat eta seme-alabentzat habia gozo bihurtzeko buru-belarri ari ten etxe-koandre maitagarria. Etxeko zeregin guztiak amak egingo zituen, noizbehinka norbaitek, alabarik zaharrenak edo, lagunduko ziolarik. Eta soroan, premia larrienak edo lanik gogorrenak zirenean, ama han izango zen familiaren alde ekinahalean...

Dena dela, Santi aitazulo dugu. Hiru mutikoetarik zaharrena izanik, aitek berekin darama batera eta bestera. Ononak ziran gure gurasoak, kristiñau zintzoak» diosku berak. Kristau-heziera ona eman zietela ere argi eta garbi dio. Igan-

de gehienetan, bazkalondoan, amak harrikoa egiteari zekion bitartean, aitak etxe aurreko madari-tantai baten itzalpera seme-alabak eraman eta hantxe irakurri ohi zien Frantzisko Iñazio Lardizabalen *Testamentu zar eta Berriko kondaira* liburitik kapitulu bat edo bi, gero azalpen gozoak eginez. «Kontu aundiz zaindu ta gorde eban liburu au nire aitak, eta azkenez il-zorian aurkitzen zala bertatik zerbaiz irakurteko eskatzen eustan».

Migel feri zalea zen eta hilero, azken larunbatetan, Markinara joaten zen, zer edo zeren salerosketa aiko-maiko eta atxakiatzat harturik. Santi mutikoa izan ohi zuen, gehienetan, lagun. Akuilua eskuetan, gizonkeria handitxoa izango zela eta, urritz-makilatxo bat emango zion eskura, bide-musturren batetan txakurren bat agertuko ere badaezpada... Atxuriartera itzuli beharrean, Markinan, Meabe (Mibe) auzoan, aitaren jaiotetxean gelditzen ziren gaua egiten. Behin, eibartar bati behia saldu eta tapa-tapa, Barinaga, Aginaga eta Azurtzan zehar Eibarrera joan zireneko pasadizua kontatzen digu bici-bizi. Han, taberna zuen izebarenera joan ziren, bertan bazkaldu, langile-hiri hartan jirabira batzu egin eta Urkorantza abiatzerakoan, aitak tren-geltokia erakutsi zion mutikoari eta, egun argiz Atxuriartera heltzeko, tapa-tapa jo zuten aita-semeek aldapan gora. Jakina! gogozko tokian aldaparik ez. Ekintza itzel eta gogoangarritzat geratuko zaio oroimenean betiko itsatsirik.

Bere liburuan zehar aitari behin eta berriro agertzen dio bere eskerrona. Aipatzekoa da Dueso-ko gartzelan zela hartaz dioena. Handik gutuna egin zion aitari Markinara, non eta nola zegoen esanez. Bigarren hilabeterako han zen aita, semea ikustera joanda. Gero, hila birik behin joan ohi zitzaion. Honela dio berak: «Ez diñot au aita goratzearren: egiazko aita zan, ni biotz-biotzez maite ninduana, orrelaxe agertu bait zan aldioro».

Aita ez zuen eskola handikoa, baina esperientziak asko ikasia bai. Hala ere Migelek, berak ez zuena, seme-alabek izan zezatela nahi zuen. Berak izan ez zuen eskola opa zien haiei. Santi zuen batez ere bere begikoa, legez honi baitzegokion Atxuriartereko oinordetza. Baserritar eskolatua eta jantzia nahi zuen, edonorakoa; eta bere gogo hori nola egia bihurtuko, ameslari ari zen.

## Goazen ikastera

Goiz ilun bat zen. Ama eta anai-arrebak mosu beroz agurtu zati batetarako eta Lekeitiorantz abiatu ziren aita eta biak. Meza berria Amoroton eman arte ez zen itzuliko Atxuriartera. Hamahiru urtez, etxetik kanpo.

Goizaldean Atxuriarteri eta han uzten zituen ama eta etxekoei egindako agurra benetan hunkigarri gertatu zitzaiola ez dago esan beharrik. Abenturaren antz pitin bat bazuen. Aurrean agertzen zitzaion etorkizun itxaropentsu eta liluragarria alde batetik eta saminezko zitzadaz arima negarrez uzten zion haustura, banatze edo urradura bestetik. Maitteen zuen zati bat atzean utzi eta, agian goizegi, haurtzaroari agur egiten ote zion susmoa nabari zaio Santi gaztetxoari. Ibilian-ibilian oinazpian elurra gesaltzen den antzera, aurrera egin beharraren egin beharrez, ordura arteko bizitza suntsituz, lurmenduz zihoakion... Dotore eta hunkipenez azaltzen digu berak une hau:

«Abenduaren laua, Barbara deunaren eguna, egun luze euritsua, billosik zugatzak, basaz bideak, bidez niñoiara, gaintxotik, atzera begira ta eskua luzatuz, agur egin neutson jaiotetxeari, agur betiko. Biotza dardar, begiak malkoz, eta aurrera aitaren ondoan; erroa eta jantzi meez ornidutako kutxa txikia eroian aitak bizkargaiñ, neure ikasle-arreoan. Oleta atzera itxi ta Arrupain-era eldukeran, uriko argi-lerroak ñirñir. (...) Argitzen eguna. jentez beterik kotxea. Ibilten asi ta an-or geldituz Gernika-ko tren-geltokian orra, eta andik Zornotza-ra asko luzatu bage. Beste pizkat luzatuz Larrean gengoan, nik arrezkero berrogei bat urte daroadazan atsedentoki ezin obean».

## Bertakoturik

Larreko Karmeldarren ikastetxe zaharraz ezin hobeki hitz egiten dute han ikasiak diren guztiek. Antzinako jau-regi eder bat zen, izatez. Barru eta kanpo etxe erosoak. Hango giroa, atsegina, gozoa. Oroitzapenak borbor azaleratzen dituzte bihotzetik hara, hunkipenez, urte haietan han izan zirenek. Goratarre horietan, Santi Onaindia bera ez dugu apalena. Saminez, tristuraz gogoratzen du haren suntsipena:

“Ikastetxe onen arrastorik be ez da agiri, alboko orma gañean jauregi arek aurrekaldean eukan armarrria, ortua ta burdin-sare luze ederto landua izan ezik. Erdi kiskaldua itxia suak gerratean, gero ja-beak eurak -prailleak- jauregiaren lau ormak eta baratz sotilleko izai, zipres ta ainbat zugatz-mota aizko-raz ebagirik, ortu biurtu eben lur-sail zabala. Nik, gure ikastetxea alan ikusi nai ezta, lau urtez ez neban an oiñik ipiñi».

Aurreraxeago ere sentimendu eta ideia berbera agertzen du:

«Larrea niretzat beti izan da alai atsegina, naiz-ta ez gerra aurretik zan aiñakoa; orduan kendu eutsoen zerbait bere-berea ebana».

Ikastetxe horren atarian dei egin zuten abenduaren lauan, eguerdi aldean, aita-seeek. Urteetan Larrean berekin biziko zen eta gaur egun ere bizi den Aita Luki orduantxe ikusi zuen lehenengoz; baita Duralde eta Barrenetxea markinar-rak ere. Hauek, Santi baino zahartxoagoak, pixka bat lehenago hara joanak. Lagun min egin zen, markinarrekin batez ere, bere aitaren herritarrek zirelako edo. Joan zen aita eta Santi gaztetxoa han geratu zen. Etxeminak erruki gabe sas-tazen zion bihotza. Egunez ez, baina gaeuz ia hilabetez eman zion negarrari berea; hala diosku berak.

Irakasleen artean, hasi-masietan zela, Anaia Gregorio, Agurain aldeko arabar argia aipatzen digu begirune eta maitasun handiz. Aurpegi ilunik egundo jarri gabe, egonarriz gaztetxoei letrak irakasten saiatzen zena. Hark irakatsiari esker, ikasturte bera berriro egin beharrik ez zutela izan, dio Aita Santik. Urteetan irakatsi zuen Larrean. Azkenez, Txilen karmeldarrek zuten Txutxunko-ko ikastetxean maisu zela hil zen. Orduko ikasleok ez dogu, ez, aren gomutarik galdu; nik beiñik-bein ez daukadaz aaztu-lezaratzeko ak emondako irakaskintza sendo sustraizkoak, bizi guztirako balio izan daus-tenak». Beste irakasle batzu ere maiteki gogoratzen ditu, ikastetxeko zuzendari izan zen Aita Roman batez ere, geroago frankotarrek Larreako baratzeko horma ondoan fusilatu zutena. Garai honetakoen artean, besteak beste, hauek agertzen ditu bere kontaketa-harian: Hermenegildo, Migel, Markos, Daniel, Plazido, Angelo, Angel... Geroago, Markinan, Aita Ur-bano Manzisidor izan zuen maisu. Euskara irakasten aparta izan behar zuen honek. Gramatikari dagozkion ohizko arloak sakonduz batera, euskalkiak ezagutarazten zizkien, baina batez ere idaztera bultzatzen zituen gazteak. Donostiako *Eus-kal Esnalea* aldizkarian datoz horien lanak, 1925-28 bitartean.

Bere herrian, Amoro-ton, hala-holako ikaslea izan zela, dio. Aukerarik ezak eragin ohi du, sarri, izpiritua erdi lotan, aurrerantz egiteko gogo barik egotea. Hala uste du eta hala aitortzen digu berak: «Neure leen-maisuari eskerrak, ikas-griñaz sutua geratu nintzan betiko».

Ikasketaren ordutegi eta zurrunbiloan sarturik, ohartu gabe heldu zitzaizkien Gabonak, Urteberriak, Erregenak. Gaztetxoen hasierako zotín, tristura eta abar uxatu ziren betiko. Gure Santi ere, dirudienez, ez zen gehiegi gogoratzen etxeko giroaz, ezta urtearen hasiera horretan, etxerik etxe «Urtebarri-barri» abestuz ibiltzen ziren lagun arteko ohitura politaz ere. Gogoratu bai, baina ez saminez, tristuraz, herriminez. «Laster egin nintzan bertoko. Bertoko giro atsegin epe-la, mai betea, egunero egindako ibillaldiak...»

Aita noizean behin joan ohi zitzaion. Halako batetan, hitzetik hortzera egotzi zion: « etxera etorri nahi dozu, se-me». Santik ezetz, eta kito. Harrezkero ez zion horrelarik aipatu. Mutila bertakoturik eta biziera berrian tinko zegoela ohartu zen aita; Karmeldar izateko barneko hazitxo hori edo, eme zitzaiola. «Goi-deia» dio berak. Eta joera edo senti-mendu horretaz gogoetaka ari denean, honako hau esaten du: «Nor dabil emen? Ixilleko amas-emoilleren bat, nik uste».

## Nobiziatua

Urteen gorpila abiada bizian zihoan. Lau urte eta erdiko lehen ikasketak bukatu ondoren, ikastetxearen aurrez aurre zuten nobiziatuan sartu behar zuten. Hango bizimodua zela eta, zaharragoen ahotik, direnak eta ez direnak entzu-nak izango ziren, behar bada: batean gauerdian jaiki beharra, bestean otoitzaldi luze eta penitentziak, luzaro isilik egon beharra... « Guk be egingo genduan besteak egiña, gogorra zala iñoskuen bizitzeari arpegi emonaz».

Eguneroko bizimoduaren azalpena ematen digu, gero, bizpahiru zirrimarra ongi taiutuetan:

«Niri leenengo bizi-oiñean ipiñi eusten gelea. Lau metro ta erdi luze, iru ta zerbait geitxoago za-bal. Bazter baten oia ta maitxo bat bestean, liburu batzukaz; leio ez-aunditik barazkiz eta fruta-zugatzez beteriko ortua ikusi neike, zabal eta eder. Gure ibilia, gelatik korura, korutik jantokira ta emendik jolasle-kura ta ikas-saloira...»

«Goizean jagi, koruko errezuak, otoitza, mezea, gosaldu, ikasi, jolastu, lokuluska, otoitzaldia ta abar. Zer ikasi? Geure legeak, otoitz jarduna, au da, karmeldar bizitzan zelan bizi etenbako otoitz-arloan. Labur: azi ta ezi tantaka-tantaka lez, leize-zuloan goitiko tangadak dagiana, Jainko-grazi ta doez geure giza izateak bete-bete egin arte».

Denbora aurrera eta gu ere bai haren harian. Heldu zitzairen gazte haiei ere profesia-eguna. Elizkizun samurra, hunkipenezkoa.

Ondoren etxeakoak eta hainbat urtez ikusi gabe zituen senide eta adiskideak agurtu eta anaiarteko bazkaria. Hura barbaroa! Bazkalondoan, berriro ere zorionak, eskumuinak etxeako eta senitartekoei ematea! Agur eta kito... Amets bat itzali da.

## Geroko urteak eta ametsak

Hurrengo urtea Markinan. Euskal idazle gisa Larrean hasitako ildotik hegazkadar txo laburrak baina gogara eginez zihoan. Zoriontsu zen, baina ustekabea eta onen-onenean ezbeharrak: Ikastetxe zaharreko lehen ikasketak burutu eta nobiziatuan sartu orduko, azken ibilalditxoak egin zuten hango ikasleek euren irakasleekin. Haien artean zen Bixente Onaindia ere, Aita Santiren anaia, hau baino bi urte gazteagoa. Urkiolara joan ziren eta handik Anboto puntara. Han irrist eginik, amildegitik behera Arrazola aldera eroririk galdu zuen bizia. Hura samina!

Ikasketa nagusiei Gasteizen emango zieten hasiera. Hemen filosofiako hiru urteak eta Begoñako Karmelon teologiako lau urteak, apaiz-karrera bukatu arte. Gazteizen aldizkaritxo bat ateratzen zuten ikasleek, euskaraz, gaztelaniaz, latinez...

Begoñako Karmelon, teologiako ikasle zela, asko idatzi zuen Santi Onaindiak, *Karmengo Argia* aldizkarian batez ere.

Gazte ameslaria genuen Santi. Baina ez txakur-ametsetan denbora alferrik ematen dutenatarikoa, ekinaren ekinenez, etsi gabe, ametsak egia bihurtzen zekiena baizik. «Zeru bat nai gendun laino ilunik bakoa. Egun argi alaia; oso-osorik geurea. Koruan, jolasean, iratzarrik eta lo, pentsamentu bat ebilkigun run-run ez tita: Meza barria».

Bazuen beste ametsik ere. Mihi gaiztoek edo diotenez, Santik etorkizunean ospetsu izateko gogoak agertu omen zuen behin ahots ozenez. Nik irribarrez hori aipatu diodan guztian, ukatu egin dit egia denik. Ikaskide izan zuen lekuko batek, ordea, baietz eta baietz esan ohi du. Zein tokitan, nola esan zuen eta guzti... Markinan, eskailera buruan, oilarra baino tenteago jarri eta esan omen zuen berak ospetsua izan behar zuela! Eta nork ukatu hori lortu duenik...? Bai, Aita Santik mihia eta luma ederki erabiltzen ditu, baina batez ere lan eginez eta egintzaz daki kukurruru egiten.

Hainbat omenaldi jaso ditu azken urteotan. Ongi mereziak! Dena dela, ez dugu horrelakoetan kikiltzen denetarikoa, bestera baizik. Orain dela hainbat urte Amoroton apaiz egondako bati honela esan omen zion behin: «Amoroton in-ori omenaldirik egitekotan, neuri egin beharko leuskide»...

## Gerratea

Bernard Etxepare-ren olerki batez ematen die hasiera, bere liburuan, gerrateko kontakizunei:

“langoikua, orai dizit egiteko handia:  
hiri honetan eriotzez hiltzen duzu jendia.  
Gathibutan hil enadin, gizon ogengabia,  
osorik, othoi, ialgiteko zuk idazu bidia,  
izterbegiak eztagidan gibeletik irria:  
« ogenduru zuian eta han galdu dik bizia».

(B. Etxepare, XIII, 92-98)

1936. urteko uztailean Eibarren zen Santi Onaindia eliz hitzaldiak egiten. Calvo Sotelo tiroz hila izan zen eta gerra-sua berehala piztuko zen zurrumurrak eta hotsak bala-bala zabaten ziren, bai jende xehearen artean, bai komunikabideetan. Afrika iparraldean hasiko zen altxamendua, Franko jenerala buru zela.



1936.eko Gabon aurretxoan dei egin zion Jose Maria Korta Uribarren jaunak, Euzko Gudarostearen kaperautza-  
ren arduradunak. Bilboko Carlton hotelean, elkarrizketa txiki baten ondoren, berehala onartu zuen hark gudarien kaperau  
izateko. «Kirikiño» batailoian lerrotu zuten eta Durangon egingo zen hilera batetan esan zioten zer egin. Bilera bukatu  
ondoren, Lauaxetari eta han zeuden beste ezagun batzuri bostekoa luzaturik, Larreara itzuli zen.

Aste hartan bertan, Durangoko Josulagunenean zen, « Kirikiño » taldeak hantxe ezarri baitzuen bere egoitza. Han  
hornitu zituzten gudariak gudurako behar zutenaz, baita kaperauak ere euren egitekoa betetzeko beharrezkoaz. Kanpan-  
zartik Intxortara bitartean, Angiozar gaintxoan egokiturik zegoen Kirikiño taldea. Hor zehar ibiliko zen Santi Onaindia ere.  
Hainbat gorabehera, pasadizu eta sentimendu kontatzen dizkigu. Beldurrik ez zuela izan, dio berak; bala artean ibiltzen  
ere ohitu egiten dela bat. Hala ere zenbait pertsona maiteren heriotzea hunkipenez azaltzen digu; esaterako, Jose Maria  
Korta kaperauen buruarena eta Kandido Saseta gudariarena. Biek erori ziren Asturias aldeko mendietan bala-kolpe  
eraitsiak. Sasetaren heriotzeak batez ere zirrara bizia eragin ziola diosku. Horrela, bihotzari hitz egiten utzirik, sentipenez  
gainezka, olerki bat eskaini zion, gero *Euzkadin* argitaratu zena. Hona hemen:

«Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!  
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.  
Aizea baizen arin da an-or edatu  
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko Aberria,  
ta Aberririk urrin, oi!, jausi zara.  
Betikoz jausi zara, leñargi antzera;  
biotzak ez nai siñets, baiña da egia.

Izkilots atergea, lurrak dart oinpean,  
sua, kea, garra, gudean gartsuki;  
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki  
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,  
euskal lurra begira, azken arnasia;  
baiña azkatasunaren lora apain-guria  
ementxe jaioko da eder, naro, triru.

Biotzean min dogu, Saseta maitea,  
biotzean mire dogu, begian negarra;  
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra,  
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zuri-otzana basoan egazka,  
biotzak samin-eunaz dituzu estali.  
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,  
argi-itzal eziñera aldatua zara.

Atsedan, bai, atsedan betiko argitan,  
barree-muiña eresiz, goi-argiz adiña.  
Beuko zu azken baga zeru-atsegiña.  
Laster gaituzu gu be, or, goi-alde ortan».

Guduaren hasieran etsaiek hil zuten. Jose Ariztimuño Olaso «Aitzol» ere mirespenez aipatzen du. Lehen garaie-  
tan, misio-ekintzei emanik bizi izan zen Gasteizen. Geroxeago, Donostiara aldatu, euskal kulturaren gaietan murgildu  
zen buru eta bihotz.

Langile porrokatua zen Aitzol, suharra. Behin gauza bati ekinez gero, aurrean zituen guztiak hartara bultzatzen  
zituen haize bortitza eta kiskalgarria. Guztiak kausa haren alde gogoberoturik, gori-gori eta adorez beterik jartzen zituena.  
Hainbat kultur arazotan esku hartu zuen: bertsolari, olerkari, antzerki-saio, sariketa eta abarretan. Berak sortu zuen *Ya-  
kintza* aldizkaria, hainbeste jakintsu, idazle eta olerkariri euskaraz idaztera eraginez.

Gudua hastean, altxamenduko jendearen asmo doilorrak sumatuz, Aitzol beste askorekin, Iparraldera joan zen, Beloken egoitza baketsua aurkiturik. Han zela, kezka jarria piztu zitzaion: herria galzorian, etsaien menpean, odoletan, eta bera geldia, atsedena-bitsetan? Aiko-maiko eta luzamenduetan denbora eman gabe, Bilbora itzuli nahi zuen eta etsi-etsian Eusko Jaurlaritzari eskaini bere zerbitzuak. Baina «Galerna» itsasuntzia eta bertan zetozen guztiak etsaiak harrapatu zituen. Donostiako *El Diario Vasco*, 1936.eko urriaren 17an, honela zioen: «Arrain lodi bat erori da, txiki batzuren artean». Eroritako guztiak fusilatzeke agindua eman zen, baina ez zen guztiz bete. Jean Pelletier, frantziarra zelako edo, ez zuten hil eta honek eman zuen *Le Soir* egunerokoan Aitzolen berri. Santi Onaindiak honela dakar haren lekukotasuna: «Gabean zear (...) arma-otsak eta pausoak. Geletatik atera ta «Galerna»tik ateratakoak pillatzen. Itxura barik dakust Ariztimuño apaiza, arpegi larri ta puztuaz. Ez dot garbi ikusten. Zaintzaile bik eutsita dago, narras daroe gero. Oraintxe fusilatu behar dabe».

Aitzol eta gainerakoak, aske geratzen zirela esanez, Hernanin, hilerriko horma ondoan izan ziren tiroz hilak.

Aitzolez gainera, tiroz hil zituzten apaizen zerrenda luzea dakar Santi Onaindiak bere liburuan: Jose Joakin Arin, Leonardo Guridi, Joseba Markiegi, Jose Inazio Peñagarikano, Jose Adarraga, Zelestino Onaindia, Jorje Iturri-Kastillo, Jose Sagarna, Alejandro Mendikute, Jose Otaño, Martin Lekuona, Gerbasio Albisu...

## Espetxean

Duesoko gartzelan sartzean, goitik beherako araketa egin zieten, aldean zuten guztia bertan uztera behartuz. Lau zaintzaile omen zituzten begi-zorrotz. Han doaz airean dominak, erlojuak, eratzunak, aiztoak, artaziak, diruak, jantziak, aldagarriak, oinetakoak... zer ez, gero? Berak ez zuela gauza berezirik, diosku. Bi liburu eskuartearen: bata Sabino Aranaren « De su alma y de su pluma » eta bestea «Kristoren Antz-bidea», Zornotzako Aita Pio karmeldarrak idatzia.

-Eta hauek zer?- galde egin zion zaintzaileak.

-Hauek otoitz-liburuak- erantzun Aita Santik

Besterik ez omen zion esan. Apaiz egin zenean etxekeok emandako erloju bat ere aldean omen zuen, baina araketa hasi orduko zapata barruan, orpopean ezkutaturik zuen eta etsaien atzaparrak haraino ez omen ziren heldu...

Epaiketak etorri ziren gero. Apaiz hauei egotzen zizkieten erruak berdintsuak izan ohi ziren: Espainia euren aberritzat ez onartzea; Espainiaren etsaiei, gudariei, laguntzea; hauek, Espainiaren kontrako altxamendurako, gogoberotzea; euskaraz idaztea... Aita Santiri hiru galdera egin omen zizkion horretarako izendaturik zegoenak: 1.a, zein daukazu zuk zeure aberritzat, Euzkadi ala Espainia? 2.a, frentean ez al zenuen gure aldera pasatzeko aukerarik izan? 3.a, zuk *Kar-mengo Argia* aldizkarian idazten zenuen...

Lehenengoari, asmo txarrez egindako galdera maltzurra zela erantzun zion. Bigarrenari, baietz, aukera ugari izan zituela beste aldera pasatzeko, baina berak gudarien ondoan zuela bere egitekoa, haiei erlijio-zerbitzuak eskaintzen, horretarako izan bait zen izendatua. Hirugarrenari, baietz, ikasle zela idazten zuela, aldizkariaren zuzendaria lan eske joan ohi zitzaiolako. Gaiztakeria guzti horien ondorioz, 30 urteko gartzela... Beste hainbat gartzelatik aske gelditu ziren, baina eurak baino bizimodu latzagoa izan zutela diosku, lan astun nekagarriak egitera behartu baitzituzten.

Hiru urtetan zehar gartzelaz gartzela erabili zituzten: Duesotik Langraritz-era, hemendik Dueñas-era eta azkenez Carmona-ra. Gorriak ikusi zituzten. Hala ere, Aita Santiri, komentuko bakardadean bizi izaten eta gelan bakar-bakarrik lan egiten ohiturik, ez zitzaion hain gogor egin. Gainera, elkarren euskarri gertatu zirela, diosku, anaiak bezala konpondurik. Horrela, denbora luze joango zela uste izanik, ikasteari, irakurtzeari eta idazteari eman zieten. Aita Santik hizkuntzak ikasten zituen, batez ere frantses, ingeles eta aleman. Hizkuntza hau ikasten taldean aritzen ziren, Besteiro jauna irakasle zela. Liburuak irakurri eta hainbat lan burutu zituen, batez ere euskara lantzeari eta olerkiak idazteari gogotsu ekinez.

Behin gartzelan zela, apezpikua etorri zitzaion bisitatzeri. Ez dakit zein gartzelatan, ezta zein apezpiku zen ere, honen berri eman zidanak ez baitzidan horrelako xehetasunik agertu. Apezpikuak Espainiaren aldeko goratzarre sutua egin zion, kontiztu, espetxeko apaiz eta erlijiosoei. Haren hitzetan, Espainia guztien aberri handia zen eta Euskal Herria beraren menpeko lurralde txiki bat; labur esateko:

«*España una, grande y libre*»... Eta aurre-aurrean zen Santiri galdetu omen zion:

-Zuk, gose izan eta aukeratzeko bi ogi, bata handi-handia eta bestea txiki-txikia aurrean jarriz gero, zein hartuko zenuke: txikia ala handia?

-Nik, neuri dagokidana! -erantzun zion Santik hitzetik hortzera, galderaren asmo zitalaz jabeturik...

Bien bitartean zer gertatzen ote zen karmeldarren artean? Guztitarikoak aurkitzen ziren haien artean ere. Batzu, Euskal Herria, euskara, gure kultura, bertako jendea maite-maite zituztenak. Carmona-ko gartzelan bertan hamar bat karmeldar izango ziren garai hartan; horrez gainera, baziren lan nekagarrietan aritu behar izan zutenak, Ameriketara edo beste toki batzutara ihes egin beharrean izan ziren fraide abertzale jator-jatorrak ere. Beraz, zorionez, asko ziren guturrak. Baina ez gutxiago beste aldekoak, han da, Euskal Herriaren etsaiak. Aita Santik, Santoña-ko espetxean, Dueso-n, sartu berri zela, Karmeldarren Probintzialari idatzi zion eta erantzuna berehala heldu zitzaion Santander-tik. Hark idazten zionez, ongi merezia zuen gartzela, karmeldar soinekoa zikindu baitzuen. «Eta iru urtez bera garbitzen alegindu nintzan giltzapeko loi, otz, gose ta askatasunik eza pazientzi aunditan eroanaz».

Honela dio, hitzez hitz, haren gutunak:

«JHS. P. Ch. II Año triunfal. Santander, 9-XII-37. Mi estimado y apreciable en Cristo: Ya es hora de que llegara a tener alguna noticia de aquel P. Santiago, a quien yo creía tan formal y sericito y ahora nos ha salido, según dicen, un poco de cuidado. Lo del *hijo pródigo* no está mal traído; pues, mejor hubiera sido que hubiese imitado al buen hijo, quedándose en casa y no metiéndose en aventuras. Así le ha lucido; y nos encontramos ahora con las manos atadas, para echarle mi salvavidas. Es una pena que se haya producido esa... desorientación tan fatal para la vida religiosa y que tanto daño ha causado al prestigio de nuestro santo hábito. No hay más que un camino: penitencia, oración y reparación, si se quiere conseguir el perdón. Le bendice y abraza, su afmo. en Jesús. P. Sergio».

Gutun honek ez du inolako azalpenik behar... Aita Sergio hau, nik neuk ere ezagutu nuen zahartzaroan. Hil arte lehengo lepotik izan zuen burua; gu euskaldunok nahiko begitan hartuak gintuela antzematen zitzaion. Garai arrikutsu haietan gartzelan eta premia larritan zeuden erlijiosoer alde zerbait egin zezakeelakoan izendatu omen zuten Probintzial, gradu handitako militar baten koinatua baitzen; baina, gizaixoak, leku onetan zeuden...! Horixe da otsoa artzain jartzea!

1940.eko uztailean eman zioten Aita Santiri askatasuna, baina Euskal Herriko komentuetara etortzerik ez zuen eta Kantabriako Hoz de Anero-ko auzunean den Rigada-ra bidali zuten. Etxe hau oso berezia da; eremutar bizitza egiteko lekua. Eskuarki ez dute hitzik egiten. Bai, noizean behin badituzte jaiak, eta orduan aritzen dira solasean elkarrekin, baina egun arruntetan ez. Hauetan isilik, otoitzean eta gogoetak egiten, gelako bakardadean eman ohi dute eguna; gainera, gauerdian ere jaiki ohi dira maitinak errezatzerara. Aita Santirekin ziren komentu hartan, Carmona-ko gartzelatik irtenda, Aita Errapel Urionaguena Bolibarko semea eta Lino Akesolo ere. «Ondo lixibatu barik ete gengoan ondiño?» -dio berak irri maltzurrez...

Geroxeago, 1942.ean, Gasteizera bidali zuten eta ustekabea, Portugal-go Viana do Castelo-ra joateko gauzak prestatzeko agintzen dio Probintzialak. Kargu horretan une horretan ez zegoen goian aipatutako hura, beste bat baizik. Aita Santik, baina, bazekien ongi, gartzelan egondakoak katea laburrez eta hurbil eduki nahi zituela Espainiako gobernuak. Eta hala, maltzurkeria pitinez, Gobernu Zibilean galde egin zuen nagusiaren agindu hori bete beharrekoa zen ala ez. Ezetz erantzun zioten gogorki eta orduan Logroñora bidali zuen nagusiak...

Logroñon sei urtez bizi izan zen. Pozik bera eta poz-pozik errioxarrak ere, Santi oso langilea eta lagunartekoa baita. Hitzun ona eta pertsona atsegina. Hemendik Hoz de Anero-ra joan zen, espetxetik irten berri bizi izan zen eremu-etxe horretara; baina oraingoan bertako nagusi; ez, espetxekoa gutxi bailitzan, ongi lixibatu beharra zuen fraide «hezigaitz badaezpadako» gisa. Hurrengo, Larreako nagusi egin zuten. Gero Eibarko nagusiaren ordezkari izan zen hiru urtetako beste tarte bat dago. Harrezkeroko guztian Larrean dago gaur arte. Zoriontsu, lan eta lan, erle langileak bezala, euskararen lore-niniketan xurgatzen duenaz ezti gozoa egiten. Bihotza eta burua ederjario oparoan. Euskara zaharra era guztitako osagai aberatsez, jantzi apainez hornitzen.

## Idazlanak

Santi Onaindiaren idazlanei begira jartzea, udazkenean, eguraldi argiz, hegohaize epelaren gozotan, pagadi edo harizti bati so egitea bezalatsu da. Neguko lotara orduko, era guztitako kolorez -berde argi, arrosa, horiska...- burua erakusten duen basoaren ikuskizun sorgina! Bertan barneratu ahala, ordea, oihan itsuan zaudela ohartzen zara. Belarkiak, iratzeak, txilarak, kukufarak, zuhaiskak, zuhaitzak, landaredi sarria.

Amorotoar honen idazlanen oihanea sartu eta zehatz-mehatz arakatu zituen, berak ohi duen bezala, Julen Urkiza adiskideak, baita Patxi Uribarrenek ere *Jakin-53.ean* (1989 uztaila-abuztua). Horregatik, hemen ez dut egingo haren idazlanen aipamen zehatzik. Haren lanen ikuspegi orokorra eman nahi nuke batetik eta ahozko literaturari eta bertso eta olerkier dagokiena bestetik.

Haren lanen artean, olerkiak, idazlan laburrak eta liburuak ditugu. Prosaz egindako idazlan laburretan, honako gai hauek jorratzen ditu batez ere: *erljiogaiak*, *euskal gaiak* eta *gai orokorrak*. Liburuetan ere oso zerronda luzea du. Hauek honela sailka genitzake: bere-bereak, bildumak, itzulpenak eta berak argitaratutako beste zenbait idazleren lanak. Dena dela, *Milla euskal-olerki eder* bilduma bada ere, hauxe da Santi Onaindiaren obra osoaren gailurra. Aipa dezadan Patxi Uribarrenek honetaz dioena:

«Hau dugu, zalantzarik gabe, euskararen historian arrakastarik handienetarikoa jaso izan duen fburua. Gerraondoko gau ilun itogarrien ondoren, egunsenti itxaropentsu gisa agertua. Euskara, gazteleraren «dialekto» eta hizkuntza basati hutsa zela belarrietan, behin eta berriro entzun ondoren, euskal munduan benetako askaldia sortu zuen liburu mardula. Euskaldunok ere munduan bagarela aditzera emateko, mendi-gailurrean entzundako irrintzia edo! (...) Gaur egun ere, ezinbesteko erreferentzia gertatzen da euskal olerkigintzaren edozein ikerlan egiteko orduan».

Joan Mari Lekuonak: «Zabalkunde eta irakaskuntz mailan hor dugu bere *Milla euskal-olerki eder* (1954), funtsezko idaztiturria gertatu dena gerrondoko gure literatur giroan».

Klasikoen itzulpenak eta *Euskal Literatura* arnasa luzeko lanak dituzu. Hala ere, haiek edonoren ahosabaiak dartzekoak ez dira. Hauek, berriz, badituzte beste zenbait ere lehian; esaterako, Mitxelenarena, Villasanterena, Auñamendiko liburuki handiak...

Santi Onaindiaren olerkigintzaz, Joan Mari Lekuonak, *Olerki guztien bilduma* liburuaren sarreran dakartzan hitzak tartekatu nahi nituzke hemen:

«Olerki mugimentu baten euskarri eta eragile izan dugu Aita Santi. *Olerki* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailtan bere bizkar hartzen duelarik euskal olerkiak plazaratzeko zeregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztaila eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osogari eta aberasgarri diren poemak sortzera edota itzultzera, eta, belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerrurreko olerkarien babesle gertatzera, joera herriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez».

Joan Mari Lekuona kexu da, Santi Onaindia, olerkiaren zabalzaile eta eragiletzat aitortua bai, baina olerkari gisa merezi lukeen baino askoz gutxiago goraiatua eta aztertua izan delako. Haren belaunaldiko beste askoren antzera, tamalez, ahaztua izan dela dio: «Denok dakigu poema asko eta asko idatzi dituela (...). Denok dakigu bi olerki liburu badi-tuela, mardulak eta arnas haundikoak».

«Bere olerkigintzari buruz proiekturik eta poetikarik zuzenean agertu ez badu ere, bi dozena artikulua inguru ditu ederrari eta olerkiari eskainiak. Beraz, estetikaren aldetik azaltzen dizkigun kezkek, gauza jakina da, hor azpian, zeharka bederenik, poetika pertsonalaren hari nagusiak adierazten dizkigutela».

Geroxeago, *Nere baserria* eta *Goiznabar* olerki-liburuaren izaeraz dihardu: «*Nere baserria* liburua, osotasun baten barruan garaturik dago, planu bati atxekia, poema nagusia eta arnas haundikoa gertatuz. Ez hala *Goiznabar*: olerki bildumaren eite haundiagoa du, urterik urte sailak osatzen direlarik».

«Azkenik, ezin dira ikuspegi berberetik epaitu liburuotako poemak. *Goiznabar* jo daiteke Lizardi eta Lauaxetaren harikoa, zehaztasunak zehaztasun. Baina *Nere baserria*, poema nagusien harikoa dugu, Orixeren *Euskaldunak* poemaren proportzioan. Badu kidetasunik Mitxelenaren *Arantzazu euskal poema* (1949) liburuarekin, eta gutxiago ezagutzen diren beste poemekin. Ez dugu ahaztu behar, arnas haundiko poemagintza hau indarrean zegoela gerrondoko olerkarien artean, eta Onaindiak ere bide hori erabili duela».

Joan Mari Lekuonak euskal olerkiari lotu-loturik ikusten du Aita Santi Onaindiaren nortasuna. Haren olerki guztien eremuan antologia bat egin behar litzatekeela ere badio eta horretarako autore bera litzatekeela inor baino egokiago: «(...) orduan ikusiko litzateke olerkari ikasi eta saiatu honen ekarririk aipagarriena. Orduan garbiago agertuko litzateke geuk hemen nolabait irudikatu duguna: estetika bat, estilo bat, testigantza liriko bat. Eta uste dugu, orain arte izan duen baino aitopen mamintsuago bat jasoko lukeela orduan».

## Ahozko literatura eta bertsolaritza

Sail honetan bete-bete sartzekoak dira, jakina! *Gure bertsolariak* eta *Enbeita oleskaria* liburuak. *Milla euskal-olerki eder* liburuan ere olerki-lanen ondoan bertso-lanak datoz. Eta *Olerki* aldizkarian ere gauza bera egin ohi du Santi Onaindiak bertsoak, bertso onak, sekula ere ez ditu baztertzen. Olerkien ondoan, haiei ere lekutxo bat egiteko joera agertu izan du beti. Ahozko literaturarekin zerikusia duten bi liburu ezin aipatu gabe utzi: *Jolasketa* eta *Lamiñak*. Irakurlearen gozagarri diren liburu interesgarriak. Bata mardula eta bestea txikia, baina biak zein baino zein atseginagoak.

Hegazkada txikiak eginez, gazte-gaztetarik hasi zen bertsoak idazten. Aita Angel azkoitiarra izan zuen irakasle eta eragile. «Gogoan dot eta ez jat aztuko, zortziko txiki bat zan, bederatzi apaldikoa nik lenengoz ikusi egian eroan neutsona. Erexi oneko agertu jatan, eta arnas-emoille, barne-zauskada ederra emon eustana». Angelo jauregi aramaiotarra ere aipatzen du, hasierako laguntzaile eta argiemaile haiek eskerronez gogoratzen bait ditu: «Nik bertso-lanean ari nanean sarri dakart oroimenera Aita jakintsu bi onein erakutsia».

Larrean *Karmel* aldizkariaren zuzendari zela, jendea euskaltzaletuz zihoala, dio, gazteak batez ere. Askok jo ohi zuten harengana bertso bila, esaterako, andereñoek eta eskoletako neskato-mutikoek. Ezin ezer gabe utzi eta bere bilduma bikainetik egokiena zeritzona hautatu, ukitutxoak edo behar ziren egokitzeak egin eta zertxobait beti eskaintzen zien eta haiek pozik unean uneko gogo eta premiei erantzuteko. Baina gero, hainbesteko olerki eta bertso-bildumak egin ondoren, hoberik eskaintzea ere bazuela eman zion senak, eta bi liburuska xume argitaratu zituen *Karmel* aldizkariaren ardurapean: *Bertso berri ta kanta zar*.

*Milla euskal-olerki eder* izan zen ondorengo lan askoren enbor nagusi. Horrela, esaterako, *Gure bertsolariak* liburua ere haren orpotik erretako altxumea da. Behin, egilearekin hizketan nintzela, hauxe esan zidan: «Ordurako nik *Milla euskal-olerki eder* eginda neukan, eta gai ugari eta aukerakoa izanik, bertsolarietaz zerbait egin neinkeala emon eustan senak eta lanari ekinik, apurka-apurka, konturatu orduko amaitu neban». Aita Santik hiruzpalau lerrotan ematen digu obra horren guna:

«Euskaldunen bertsolarietza doai gotorra dozu, gure aozko literaturaren ezaugarri nabarmenena, ez bakarrik azken urteotara arte eskola aundi bako erriaren poesi-kutsuz jarioka daukagulako, baita erri-biotzaren eragin samurrak eta ikutu gozo atseginenak bertsoz iraultzen trebe dalako be. Or gure bertsolarietza egi-egiazkoa».

Lau zatitan eratua dago liburua: lehen zatian, munduko hainbat aldetan izan diren bertsolariak aipatzen dizkigu; bigarrenean, euskal bertsolarietza jorratzen du; hirugarrenean, bertso-motak; laugarrenean, gure bertsolariak (historia pixka bat). Lehen zatikoak, antzina zaharrenean, denboraren tolestura ilunetan erdi galdurik dagoelako, jakinmin handiagoa sortu ohi du. Honelako atalak ditu: bertso-esaleak, bertso-egileak, bertsolarien ibilerak, bertsolariak literaturan (Egipto, Txina, Japonia, India); judutarren artean, Biblian; Grezian: aedoak eta rapsodak; keltarren artean, bardoak; germaniarren artean, eskaldak; Frantziako elezaharren kantariak; Probenzako trobadoreak; euskal kanta zaharrak; erromantzeak, baladak, maite-leloak, irri-kantak, ardo-kantak, jainkozko kantak, pastoralak...

Bere liburuaren nondik norakoa hitz gutxitan azaldu ondoren, betiko umorea agertzen digu Aita Santik:

«Auxe nire liburu onen guna. Ez dozu esango garrantzi bakoia danik. Erriak eta jakitunak txaloka artu eben berau, batzuentzat (bizkaieraz egoalako edo) ain gogoko ezpazan be. Ezta errez, izan be, mundu guztiari atsegin emotea».

Azken aipamen laburra Urretxindorrari buruzko lanaz egin nahi nuke. Bi argitarapen ezagutzen ditugu Muxikako bertsolari handiaz: bata, Zarauzko Itxaropenaren «Kuliska Sorta»n, 1966.ean, argitaratua *Enbeita oleskaria* izenburuaz; bestea, berriz, Buenos Aires-ko «Ekin» argitaletxeak 1971.ean argitaratua, *Ebeita'tar kepa, gure urretxindorra* izenburuaz.

Ea bilduko zituen haren bertso idatziak esanez etorri omen zitzaizkion behin Santi Onaindiari. Nahiko zabalduzkiezen *Euzkadin* eta garai hartako aldizkarietan. Asko idatzi zuen Enbeitak. Biltze-lanari ekiteko haren etxera joan zen. Bera hila zen ordurako, baina haren etxeak erraztasun eta laguntza guztiak eman zizkieten. Horrela, laster bukatu zuen lana. «Oleskaria» esaten dio honi. Nik horren zergatiaz galde eginik, honela erantzun zidan:

«*Oles egitea* deitzea da, atean kask-kask jotea. Bertsolari batzuk ere oles egiten dakie. Nori egiten deutse oles? Entzuteko prest egon leitekezan euskaldun guztiei, baina batez ere herriari. Herriari kask-kask eginik, haren barrua, bai bihotza eta bai haren izate guztia dardaraz jartzen dauana, hori da *oleskaria* niretzat. Bertsolaria zan bera izan, baina gerra aurretik, hemen Bizkaian batez ere, mitinen bat zanean, batzarren bat zanean, Enbeitari deitzen eutsien; eta ha ez zan ibiltzen hau eta bestea esaten; herriagana joian zuzen; irudi polit batzuk erabilten zituan handik eta hemendik hartuta eta herriaren bihotza dardaraka ipintera joian. Abertzaletasuna zabaltzen ibili ohi zan. Beste batzuk ere ibiliko ziran, baina Enbeitara zan beti deitua toki guztietara. Horregaitik ipini neban nik, liburu horretan, *oleskari* eta gaur ere horretara dabiltzanei oleskari deitzen deutset».

« Enbeitaren bertsoak goiko argiaz eta bihotzeko suaz eginak dina », esan zidan geroxeago.

## Azken hitzak

Pozik egin dut txango haU Santi Onaindiaren bizitzan barrena, haren *Oroi-txinpartak* liburua gidari dudala. Atxuriartetik Larreara. Gero hainbat komentutan zehar igaro ondoren, Euskal Herriko mendietan balak hurbiletik txistu egin arren, izutu gabe, gudarien zerbitzari zintzo, haien artean kristau-mezua aldarrikatzen, haien bizitza pozten, aholku onak ematen... Geroago, garaileak ezarritako lege latzari itzuri ezinik, gartzela tristean gorriak ikusiz, Dueso-n, Langraitzen, Dueñas-en eta Carmona-n zehar. Carmona-ko ziega ilun hartatik askatasuna lortutakoan, Euskal Herrira itzultzerik ez, eta Hoz de Anero-ko eremu-bizitzan lixibatu behar izan zituen Espainiaren aurkako "dongakeria" handiak. Hainbat atzera-aurrera eta gorabehera, beti ere diktadore zaharraren makilapean, Larreako bere txoko maitera itzuli arte.

Zehar-meharka, bizitza luze eta oparo batek dituen hara-hona eta itzulinguru artean. Haren poz eta nahigabeak pixka bat neure eginik, ahaztu ez zaizkidanak, handi-handika hemen kontatu dizkizut, irakurle.

Baina haren idazlanei begira-begira luzaro izan naiz eta, gain-gainetxotik ateratako argazki xume bat behinik behin eskaintzen dizudalakoan nago. Hala ere, beste batzuk aurretik esana izan arren, bi gauzatxo esan gabe ezin dut etsi: batetik dibulgatzaile handia dugula; han-hor-hemen ikusi eta ikasiak bere lumaren bidez euskal munduan zabaltzen ahalegindu dena; eta bestetik, urterik zailenetan, *Karmel* eta *Oleri* aldizkarien zuzendari eta eusle izan dela.

Luis Baraiazarra Txertudi

## AITA SANTI ONAINDIA, bertsozale eta aztertzaile «NI HILTEKO SASOITIK PASATUTA NAGO»

Orain larogeta lau urte Bizkaiko Amoroetako Atxuriarte baserrian jaio zen Santi Onaindia honek, Aita Santi bihurtu barri zela, frentean ibili behar izan eban, gudarien kaperau, azkenean, Francotarrak bila etozela, Laredon Italiarren esku-etan azkena emon arte. Santoñan entregatu ei ziren. Itsasuntzi ingelesetan alde egingo ebelakoan, El Duesoko espetxean amaitu eban. Zortzi egun igaro aurretik, laster hasi ei ziren epaiketak. Abade edo fraile izateak ez eban harako balio. Aita Santiri beragaz Larrako komentuan ikasitako Bilbotar bat tokatu jakon epaile.

-Epailea hasi jatan zuk zer egin dozuka, eta gero itaundu eustan:

«Zure aberria zein da? Euskadi ala Espainia?» Nik esan neutson hori itaun harrapakorra zela. Eta berak: «Ah! Zuk zeure burua espainoltzat bazeunka, behingoan erantzungo zeunke». Egundoko sermoia bota eustan. Ni isilik. Zer egingo neban, ba? Bigarren itauna: la euren aldera pasetako erarik izan neban. Nik baietz. Elgetan, Intxorta azpian egon nintzen, gu goian eta eurak azpian, eta gura izan baneu, errez pasatuko nintzen. Eta erantzun neutson: « Ni gudarien kaperau izateko izentatu ninduen, eta nik horixe bete behar neban ». Hirugarren itauna: la Karmengo Argian idazten neban. Hementxe Larran urtetan eban hak. Nik baietz. Antza, salatzailearen bat izan zen. Nik esan neutson lanak eskatu egiten eustezala eta zegaitik ukatu behar neban. Isildu egin zen. Dana dala, hogeta hamar urteko espetxea emon eustan. *Etakoek* be badaukiez holako gauzak, baina guri be halako erru handi barik emoten euskuezan holako zerak, eta hiru urtean preso egon nintzen, zigor hori lepoan nebala.

Aita Santi kontalari ugaria da. Espetxeko kontuekaz luze ekingo leuskio eta oso gogoan dauka dana. Santoñatik Nanclaresera, hemendik Venta de Bañosko Trapa Komentura eta handik Carbonara. Auziak berrikusten hastean, hogeta hamarretik hamabira eta gero sei urtera jatsi eutsoen. Azkenean hiru urte eginda libratu.

-El Dueson Besteiro be gugaz egon zen, Madril Francoren eskuetan itzi ebana. Gugaz oso ondo portatu zen eta gu be bai beragaz.

Oso gizon ona zen. Sozialista artean be, haiek behintzat, santuak ez ziren izango, baina nahiko onak ziren.

-Abade eta fraile aparte ala nastean egon zinien?

-El Dueson nastean, baina besteetan aparte. Niretzat hiru urte espetxean ez ziren txarrak izan. Hantxe ikasi genduzan frantsesa, beste batez ingelesa be nahiko ondo, eta gero alemana be bai. Besteirok berak argitzen euskuzan dudak, eta oso ondo. Aleman ondo ikasi leike, euskerearen antza be badauka, joskeran eta holako zeretan.

Aita Santi hogeta sei urtegeaz fraile egin zen, hogeta hamabosgarren urtean. Gerrak Begoñan harrapatu eban karmeldar gaztea. Espetxean hainbat gizon eta eleizgizon ezagutu ei ebazan, Besteiroz ganera: Luki Artetxe, Euzko Gobernukoa, Ajuriagerra, Aita Agirre eta abar.

-Gerra aurrean ezer sometan zenduen? Baetorrela edo?

-Ni orduan Eibarren nengoan, Karmengo Amaren bederatziurrena egiten. Han holako gauzak esaten ziren. Hango organistea andra bat zen eta hak argi esaten eban gerrea etorrela, baina guk ez gendun sinesten. Eibarren oso aurrea egozan. Han sozialistak eta baziren, eta gero be sei urte egin nebazan Eibarren eta hango sozialistak ganorazkoak ziren eta ondo konpontzen ginen.

-Eta zeuek komentuan ez zeuntsoen gerreari usainik hartzen?

-Hemen, Larran, ez neban ezer sometan.

-Jenteagaz ez zeunkan hartu-emonik ala?

-Bai, baina jentea isilik egoten zen.

Larrako Kalmeldarren komentua Zornotzan dago eta Aita Santik denporarik gehiena komentu honetantxe egin dau. Izan dauan kargurik handiena priorea izan ei da, hots, komentu bateko buru egiten dauana.

-Zelan gogoratu jatzun fraile etortea?

-Ba, orduko gurasoek umeei euren bano gehitxoago irakatsi gura izaten eutsien. Gure aita tasadorea zen eta kontuak egiteko eta etxean bat gura eban. Gero Markiñatik Hermano bat be etorten zen, eta nire anai batek beti baietz esaten eban. Nik sekula ez neutson baietzik esan, baina azkenean neu joan nintzen lehenengo. Gero anaia be etorri zen, eta Urkiolatik ibilaldi batean, Anboto ganean, laprast egin eta bertan hil zen.

-Hamabi urtegeaz etorri zinenean, benetan fraile egitea zenkarren buruan?

-Bai zera! Nik ez neukan halako pentsamentu garbirik. Aita ordaintzera etorten zen. Ez zen gauza handirik, egunean hiru pezeta edo. Urte bi eginda, aitak esan eustan: «Polito ikasi dok, kontuak egiten-da. kartak be egiten dozak eta etxera etorri gura badok»...

Eta nik berez-berez esan neutson: « Aita, ni hemen ondo nago».

Eta gero, ez berak niri ez nik berari, sekula ez gendun aitatu be egin.

-Eta komentura joan arte? Zelako umezaroa igaro zendun?

-Ba, eskolara ordu erdi bano gehitxoago geunkan, eta noizean behin joaten ginen. Armiñan baegoen eskola moduko bat, baina guk han argi posteetako kikarak apurtzen emoten gendun denporea. Etxean ardi zain eta itaurren egin behar izaten zen. Zortzi urtegeaz morroi be egon nintzen Belakolan, itaurren egiteko, baina astebete eginda, etxera etorri nintzen eta ez eustien ezer esan.

-Eta jolasik?

-Domeketan dotrinara joaten ginen. Beheko etxe batean neskazahar bat be baegoen eta maiatzeko lorak eta beragaz egiten genduzan.

Alakuara be joaten ginen, baina han nagusiak egozan eta “zuek umazorriok, alde hemendik” esanda bialtzen ginduezan. Txopiteara neska laguntzen-da joaten ginen.

-Neska laguntzen umetan?

-Ba, horixe. Etxera lagundu eta bidean jolastu. Guk orduan ez geunkan malezirik. Hantxe ibili, etxe batetik bestera. Txopiteko neska bat, Jauregitarra, hor dago gaur be Gernikan moja, eta ordutik ez dot ikusi. Berak ni ikusita nauka, han mezea emoten, baina neuk bera ez dot ikusi, eta joan behar dot bisita bat egitera.

Aita Santik aitatu dauskuzan izenak Amorotoko baserri batzuk dira, Eleizaldetik nahiko urrun danak be. Itaurren egite hori ez gustatea errez sinesten dot. Neuk be uste dot itaurren ez egiteagaitik erabagi nebala fraile joatea.

-Eta zelako oporrak edo zer izaten zenduen?

-Oporrik sekula be ez. Han ez egoen oporrik. Behin Lekeitiotik abisatu eustien: «Padre muerto». Autobusa hartu eta triste-triste joan nintzen Amorotorantz. Baina Lekeition bide batez osabarenean gelditu nintzen, eta hara non geure aitak berak zabaltzen daustan atea! Hil zena osaba zen, baina haren semeak idatzi eustan eta nik geura aita zela ulertu. Baina orduantxe be gauerako barriz komentura. Gero, Markiñan nengoela, behin pasioan etxeraino heldu ginen. Ni harro, danai gure etxea erakusten.

-Ez al zinen lotsatzen, «borono» eta halako gauzak entzunda?

-Ez. Hori esaten ebenak eurak ziren boronoak. Gu gehienak baserritarrak eta euskaldunak ginen. Fraileak be bai. Batzuk baziren ez zirenak, baina ikastetxeko giroa euskalduna zen. Horrek asko esan gura dau. Beraz, guk ez gendun beste batzuk kontetan daben lotsarik eta burlarik izaten.

-Komentuan, zeuen artean, zelan berba egiten zenduen?

-Astean egun bat euskeraz egitea derrigorra gendun. Latinez be bai. Besteetan erderaz egiten zen, baina nahi ebenak euskeraz.

Ez ikasleon ez aiten artean ez zen horretan eztabaidarik edo temarik izaten. Hementxe hasi ginen domeketan-da dotrina euskeraz ikasten, eta astegunetan euskeraz lantxoak egiten.

-Egia da nobiziadutik aurrera hain bizimodu gogorra zeunkiela?

-Nobiziadua beti izan da gogorra. Gauerdian jagi behar, ordubete maitinak errezetan eta gero beste orduerdiko otoitzaldia. Hotz handiaz eta izten euskuen lehenago oheratzen. Eta gero asteen hiru bider bernak diziplinaz zigortzen genduzan.

-Zilizioa?

-Ez. Zilizioa zankabean edo izterrean itsastekoa da, halako lepeztun haginduna lakoa. Diziplina zartailu antzeko bat da, kordel sorta bat, puntetan morapiloak daukazana.

-Eta zer egiten zenduen? Alkar jo.

-Ez! Hori bakotzak bere buruari egiten dautso. Argia amatatu eta jo.

-Eta jo egiten al zendun?

-Gogor ganera! Gaztetan gogoa bero egoten da eta igarri be ez jako egiten. Holantxe dala eta aurrera.

-Zu estu samarra edo zorrotza izan al zara?

-Ni ez naz zorrotza izan. Normala. Batzuk baegozan, bai, oso gogor hartzen ebenak, odola atarateraino. Ormetan izaten ziren odol tantak. Nik ez neban odolik ataraten. Gero hankak be gogortu egiten ziren eta ez jakon hainbeste igarten.

-Hagaitik izango da fraileek neguan be sandaliak ortozik erabiltea.

-Hi! Sandalia oinetako ona dok, eh? Usain bakoa, garbia, eta neguan hotz apur bat, baina gaztetan danari eusten jakok.

Aita Santi, beste frailekide asko lez, herririk herri asko ibilia da sermoilari. Pozik joaten ei ziren, bueltan zeozer ordaina be ekarten zan-da. Komentuko larogetik gora nobizio mantentzeko, danak gazteak eta jatunak, zeozer ekarri behar nondibait.

-Zu urtenezalea izan zara?

-Ez. Erarik ez bada, lasai. Baina joan behar danean pozik.

-Zuk besteak baino martxa gehitxoago ei daukazu.

-Bai? Okerra? Ez dakit, ba. Beharbada bizkortxoagoa bai. Halan esaten dabe. Hi! Malezi pixkat komeni be badok, eh! Ez beti kokolo-kokolo.

-Egia al da Aita Santi andra artean gustora egoten dala?

-Gizonak tabernara joaten dira-ta! Andrak kontulariagoak dira, eta andrazkoen hautua beti be gozoagoa izaten da. Hori berezkoa da. Gizonei atara egin beharjake, eta orduan be, taberna, futbola eta holako gauzak. Andrazkoek gehiago esaten dabe.

-Eta andrazkoek zeu ez zaitue inoz tentatu edo zirikatu izan?

-Meleziz zirikatu? Ez, ez dok normala. Baina zeozer maleziz bota eta heu erdi lelo harrapetan bahabe, orduan gehiago botaten jabezak. Eta hortik gorakorik, ba... Ni inoz egon nok pentsetan neure bizitzan holakorik egin ete daustien, baina ez.

-Pentsetan egoteko, zerbaiten susmoa izan dozu nonbait.

-Bat kontatuko dauat. Gerra ostetxoa zen eta Logroñon nengoan.



Andra bat edo neskazahar bat -ez dakit garbi- parrokian sakristiatik bota egin eben, ez txarra zelako, han inguruan ibiltzen zelako baino, antza. Eta gure komentura etorri zen eta nigaz konfesetan hasi zen. Hor baeitekeen zeozer egotea, malezia edo, baina nik taktika aparta euki dot horretan: beti santutasunaz eta ahalik zuzenen berba egin, «hauxe eta hauxe egin behar dozu», eta hurrengo datorrenean be beste hainbeste. Laugarrenean ez dator. Gehiago ez da etorren. Eta orduan pentsetan dozu: «Horrek gogait egin jok eta joan dok». Baleiteke neuk txarto pentsetea, baina norberak aurrea hartu ezker, ez dago bildurrik.

Aita Santik erreflexu bizkorrak daukaz, daroazan urteetarako. Gizon hau lelo harrapetea azeria lo harrapetea baino gatxagoa izango da. Ikastun handia izanik, kontu kontari jardutea oso atsegin dau. Beti berbakera irribarretsua, laban-maltzurren artekoa. Adarra jotea maite dau, baina aurreregi doala begitantzen bajako, atzera egingo dautzu. Negu aldean hil batzuk Benidormen egiten ei ditu.

-Aizu, baina omenaldi egunerako, Benidormen bazagoz be, etorri beharko dozu, ezta?

-Bai? Derrigorra dok?

-Ia zer omenaldi egin behar dogun, omendua falta dala.

-Tirok, ba! Tirok, ba! Egingo joagu zelan edo halan etorteko modua.

-Halako egunetan, omenaldi egunetan alegia, larritu egiten zara?

-Ez! Zetako? Larrituta zer irabazten dok, ba? Derion egin eustien omenaldi polit bat. Neuk be ez nekien zegaitik.

Antza, urtero egiten dabe holako zeozer, eta urte batez niri egitea pentsatu. Hitzaldi batzuk izan ziren. Lehenengo, nire probintzialak, Aita Arostegik, nire bizitza azaldu eban. Gero Lekuona gazteak ni olerkari lez hartu nindun. Eta gero Xarritonek nire «Mila Euskal Olerki Eder» liburuak zelako indarra euki dauan mugaz handik. Ondo egon zen. Gero kantak, musikak eta ederto.

-Zeozer eragingo eutsun baina!

-Bapez.

-Bapez? Egunean omenaldi bat hartzeko moduan zagoz zu orduan!

-Zaharrak larri egoten dozak ala?

-Ez dakit, ba. Holakoetan bat baino gehiago ilusi izan dot erdi negarrez be, sentimentuak eraginda edo. Zu ez?

-Ez. Egun horretan negar egingo joagu, ba? Emozinoz edo egingo jakbek.

-Bai. Emozinoz, jakina.

-Ez. Ez joat uste ni holan jarriko nazenik.

-Bertsolaritzara zelan jo zendun zuk? Etxetik? Tradiziotik?

-Ba, Amorototik Lekeitiora bost kilometro dagoz, eta sarritan ez dinot, baina domeketan-da joaten Binen. Eta han, umetan, inoz bertsolariak entzun nebazan. Kepa Enbeitari be behin entzun neutson Amoroton. Ez dakit zer jai izango zen. Gero hona, Larrako komentura etorrita, Karmengo Amaren egunean bertsolariak beti izan dira, zeozer behintzat. Eta hau be, Enbeita zaharra, hona etorten zen beti, gerra aurretik eta ostean be bai, baina aurretik batez be bera zen gehien ibiltzen zena. Horrek edo eragingo eustan.

-Eta zek euskalzaletu zinduzan?

-Ba, holakoxe zeozer izango zen. Ni, hamabost-hamasei urte neukazala, nobiziadu aurretik, euskeraz idazten hasi nintzen. Lekeition be ba neban osaba bat, liburu asko eukana, Azkuerenak eta. Orduan liburuak eskatu neutsozan eta bialdu egin eustazan. Gogoan daukat Azkueren «Txirristadak», esaterako, oso maite nebala. Libur polita da. Horrek be asko lagunduko eustan, bai bertsoak egiteko, bai zaletzeko.

-Bertsoak egin be bai? Mutikotan?

-Bertsoak baino gehiago olerkiak.

-Bertsolariak Larrako komentuan entzuten zenduzala esan dozu. Beste jnon?

-Ez. Hementxe bakarrik. Eta pentsetan neban: «Hauek dira gizonak!». Miresmena izaten neutsen. Ganera zelan egiten eben be harritzen nintzen, ez paperik ez ezer barik. Guk liburuetan eta pentsatuta egiten gendun, baina bertsolariak holako barik, bota eta bota. Zelako gaiak, pentsamentuak, berbak eta abar erabilten ebezan kargutzen egoten nintzen. Enbeita sarri etorten zen. Arratxaldetik be etorten ziren, gero Mungialdetik be bai, «Taket» esaten eutsoen bat. Basarri eta horiek be Berra aurretik ezagutzen nebazan, hona komentura etorten zirenean eta.

-Gerrostean be ba zeunkien bertsolariak komentura ekarteko ohitura hori?

-Bai, bai. Komentuan ez ziren gugaz hainbeste sartzen. Gerrostean herrietan be kantetan zen, baina gerraurrean askoz gehiago.

Ezagunenak, ba, hemen horiexek ziren. Kepa Enbeita eta Basarri be etorten ziren honaino. Basarri ondino gazetxoa zen.

Nik behin hiru maila egozala idatzi neban: bertsolariak, oleskariak eta olerkariak.

-Zer da hori, azaltzeko modukoa bada?

-Bai. Izango ez da, ba? Bertsolaria apur bat taberna giroari lotuta egon dana esan leiteke. Oleskaria barriz oles egiten dauana.

Atea jo eta oles egin. Hik badakik hori zer dan. Erromesek be horixe egiten eben, Santiago bidean eta abar. Kepa Enbeita, esaterako, oleskarizat daukat nik. Orduan Euskal Herria asko abertzaletu zen, eta hak beti atea jotzen lez kantetan eban. Bihotza jotzen lez. Eta horren ganetik gero olerkariak dagoz. «Ganetik» horrek ez dau hobeak edo gurgarriagoak esan gura, baina hizkuntzaz eta abarrez olerkaria askoz landuagoa da beti be.

-Zu bertsolaritzaren aztertzailea izan zara. Nondik jatortzu hori?

-Ni liburu artean ibili naz beti. Espetxean egon ginenak Euskal Herritik kanpora botateko ordenea etorri zen eta halantxe bialdu ninduen Logroñorua, askatu eta laster. Han baegozan euskerazko liburuak, Markiñako Garate izeneko batek itziak, esaterako, eta haiek irakurtzen hasi nintzenean, bertsoak agertzen ziren han. Liburu haiek hona ekarri neban eta gaur be hemen dagoz.

-Inok ez eutsun esan «nora daroazuz horiek?»

-Ez! Komentuetan hori baino zeragoak gozak, geure ordena barruan behintzat. Larrara lehenengoz etorri nintzenean, hemen bertsoak eta olerkiak batzen hasi nintzen. Lehenengo liburuak arakatzen. Iruñara, Donostira eta mugaz beste aldera joaten hasi nintzen. Holantxe egin neban liburu hau: «Mila Euskal Olerki Eder». Asko batu neban, beste ale bat egiteko lain. Hor daukadaz ondino.

Edonok autortuko dau liburu hori aldi haretan oso garrantzitsua izan zela, euskeraz zerbait zaleak zirenen artean. Gero be bilduma handia eta oparoa izaten dirau, baina urte haietan eskurik esku erabili gendun, komentu, seminario eta holakoetan batez be. Gure jaiotetxetik Larrako komentua bistan dago, eta hango kanpaiak argi-argi etorten jakuzan oheraino. Oporretan, etxe alboan edo kerixapean, «Mila Euskal Olerki Eder» irakurten nebanean, gogoan daukat Larrarantz sarritan begiratzen nebala, «honen egilea hantxe jagok, ba!» pentsatuz.

-Gero Agirre Lehendakariaren saria etorri zen, urtero egiten ebena. Nik hirugarren edo laugarren urtean «Gure Bertsolariak» izeneko liburua aurkeztu neban eta saria irabazi neban. Parisen antolatzen zen, baina Baionan emon eustien. Mila dolar.

-Orduan dirutxoa izango zen hori.

-Mila dolar zeozer zen, bai. Baina nik jolas lez idatzi neban liburua. Gero Kepa Enbeitari buruz be idatzi neban liburu bat, eta horrez ganera artikulu asko han hemen.

-Zelan jarraitu dozu bertsolaritza? Komentutik ala hurragotik be bai?

-Jarraitu ez dot asko jarraitu. Inoz epaile be izan nintzen, Bizkaiko txapelketak hasi zirenean. Lan hori pozik egiten neban.

Gero txapelketa gehienetan izango nintzen entzule. Urepelen be izan naz behin edo behin. Baina hortik aurrera, bertsolarien herrietako ibilera hori ez dot larregi jarraitu.

-Komentuko eguneroko ibilera be ez da izango bertso giroari jagokona, ezta?

-Ba, guk egiten genduzan bertsoak be. Aita Luziok eta nik, urtean egun batean, komunidade osoaren aurrean kantetan gendun. Bakotxaren urte egunean izaten zen hori. Beraz, urtean bi bider gitxienez. Bazkaria amaitu eta kantatu.

-Eta komunidade osoa entzuten?

-Bai. Hantxe egon behar izaten eben entzuten, guk amaitu arte.

Gero jaietan eta abar, inoz bertsolariak kanpotik etorten zirenean be, zeozer egiten gendun nasteen.

-Bertsoak hasi eta amaitu egiten zenduezan?

-Bai, bai. Apur bat aurretik pentsatuta, jakina. Niri ez eustan askorik ardua izaten, bide erdian toton egin arren be.

-Gatozen orain euskerara. Zuk zelan ikusten dozu berba egiten dan euskerearen martxea, Bizkaian batez be? Zelako panorama modua begitantzen jatzu?

-Gaurkoa ez dot hain txarto ilusten. Badakit baserriarrek eta zer egiten eben, baserriak itzi, behera jatsi eta euskera han goian laga, baserri hutsean. Ez euskaldunek euskerarik ez ekielako, baina erdereza zen nagusi. «Zuek ez dakizue euskeraz ala?» -esaten dautset nik danai. Umetxoek ikasten dabe, eta ez da hain gatxa be. Urteetan aurrera doazentzat baleiteke gatx samarra izatea, baina umeentzat? Laster ikasten dabe. Baina kalean egitea ez dago modan. Gaur jakin nahikoa gehiago dakie, baina egin nik uste dot lehen gehiago egiten zela, askok besterik be ez ekien-da. Bizkaia osoari begira be antzera dala esango neuke, Zornotzako antzera.

-Zuk zer uste dozu? Gaur ala orain hamabost urte egiten zela euskera gehiago?

-Egitea antzera samar ibiliko da. Jakin orduan baino gehiago gaur seguru asko.

-Euskera Batuaren auziari zer deritxozu? On ala kalte egin dau?

-Ez dot uste batuak kalterik ekarri dauanik. Horrek euskereari zauskada bat emon dautso. Orain, ba, batzuk hasarre direla edo?

Batuaren sortze hori baleiteke bide onetik ez eroan izatea beharbada. Azkuek beste ideia bat eukan, beste asmo bat. Batasuna, baina beste era batera. Guk goitik behera ez dogu ezertxo onartzen, ez politikan, ez linguistikan. Baina ez dago zetan hasarratu hori dala-ta.

-Inoz esaten da Frankismoan, zapalduago egoalako edo, euskereak su gehiago eukala eta orain beharbada malku egin dala. Zuk zer deritoxozu?

-Bai. Hori pasetan da, baina ez dakit, ba. Nik uste dot gaur gehiago ikasten dala. Frankismoan baegozan, bai, eragozpenak, baina nik orduan be ez neban bildurrik euki. Pulpititik be esan behar zena esaten neban. Eta sariketaxoak be antolotzen genduzan. Inoz itauntzen eusten ia baimenik baneukan, baina nik sekula ez dot baimenik eskatu. Eta sekula ez neban ezer izan, edo ez ziren ausartu. Gugaz ez ziren sartzen.

-Eta euskera idatzia? Zuen garaitik hona zer martxa ikusi dozu?

-Hor, gerraurrean, indar handiko euskerea etorren. Haienak jarraitu baleu, gaur beharbada indar handiagoa izango eban. Orduan asko eta ona zen. Primo de Riverak be Euskal Herria lotuta euki eban, gero, ha jaustean, apur bat askatu zen baina. Orduan be baziren gizonak. Aitzolek, esaterako, zenbat lan eta zer egin eban! Eta ganera idazle onak be baegozan. Lizardi orduantxe egin zen olerkari. Orixe indartsu etorren, eta beste batzuk be bai haren inguruan. Gero, gerratean, gauzea nahiko isildu zen, eta ondoren barriro bizten hasi zen. Zaitetik Guatemalan bere «Euzko Gogoa» ataraten eban. Gero Paristik «Euskaltzaleak» sortu zen, eta horrek be nahiko lan egin eban. Eta bertan geratu zirenak, atzerri-ra joan ez zirenak, ba, ahaleginean ebizan behintzat. Fusilatutak be izan ziren idazle onak, Lauaxeta esaterako.

-Zuk Aitzol ezagutu zendun?

-Bai. Asko. Asko. Gizon ona zen. Batzuk hau eta hori esaten dabe, baina gizon ona zen. Jesuita ikasten egoen Loiolan eta gero urten egin eban, gerra aurretikoan. Bilbora etorri zen eta orduan ni Begoñan nengoen eta bera ikustera joaten ginen. Entzutetsua zen, olerkari eta honetara. Korreo kalera jasten ginen, eta beragaz egonda, pozik barriro komentura.

-Zelakoa zen? Isil samarra? Kontularia?

-Ah, bai! Berbalduna zen, oso berba errezekoa. Ni baizen berbalduna ez, baina nahikoa. Beti zentzunez berba egiten ebana.

Eta Aitzolek ataraten eban aldizkarian guk be idazten gendun. Desusen Bihotzaren Deia be baegoen. Kaputxinoen Zeruko Argia be bai, hau ona, bera lakoxea. Eta euskera gozoa eta ondo idatzia izaten zen.

-Inorenak esan dozuz. Orain zeureak esaizuz, zu be aldizkari eta hainbat gauza egina zara-ta.

-Bai. Gerrostean, batzuk hara, besteak hona, ez egoen erreztasun handirik. Ni neu, hemen Euskal Herri barruan, lehenengoe-tarik hasi nintzen. Kaputxinoek eta Arantzazukoek be baziharduen. Baina ni Logroñon nengoen. Han be euskeraz idazten neban, eta handik Santanderrera joan nintzenean, hantxe hasi nintzen Karmengo Amaren egutegia ataraten. Gero, ba, gauzak aurrera, eta olerkeriek be zeozer eskatu egiten eben, eta orduan *Oleri* sortu neban. Hor sartzen nebazan olerkiak eta bertso asko be bai. *Karmel* eta *Oleri* aldizkariak gaur be jarraitzen dabe. Hauen ostean sortu ziren *Anaitasuna* eta horiek. Batzuk jarraitzen dabe eta beste batzuk ez.

-Aldizkari horiek atarateko, ez al zendun eragozpenik izatan? Lege aldetik eta abar esan nahi dot.

-Ba, ale guzti-guztiak Madrilera bialdu behar izaten nebazan, eta handik Arrueri deitzen eutsen, zelako lanak eukazan hor ikusteko. Eta berak zeozer ipinten baeban, handik etorren hori: «Hau ez». Dana dala, eurak ez ziren nigaz txarto be portetan. Hori *Karmel* aldizkariak. Beste *Oleri* horrek sekula ez dau baimenik izan. Beti ezetz eta ezetz erantzuten eusten. Nik *Karmelen* gehigarritzat eta holan ipinten neban, baina horixe be ez eusten onartzen. Azkenean esan eben: «No saque más. Anda usted de trampa». Baina atara egiten neban eta ez eusten ezer egiten.

-Lehen esan dozu Euskera Batua beste bide batetik eroan behar zela. Zein litzake bide hori zure ustez?

-Ez dakit, baina hainbeste matraka barik behintzat. Nik uste dot halako burruka bat izan dala, baina ez eban izan behar. Ez gendun giro onik sortu. Eta gero, ba, holantxe gabiz, bakotxa bere bidetik. Eta beharbada hoba horixe, holan behintzat burrukarik ez dago-ta.

Aita Santik kritikari barkakorregiaren entzutea izan dau. Idazlearen akatsak zehaztea kosta egiten jako, antza, eta danai aurkitzen dautse zeozer ona. Neu be gaztetan, ondino ikasle nintzela, liburu baten itzulpena eroana naz Aita Santiri. Honek dana ontzat emoten eban. Euskal Literaturaren historiak be eginda daukaz, eta gehienean, beti ez bada, alderdi onak nabarmentzen ahaleginduko da. Horregaitik batzuk esango dabe Aita Santiren kritikak eskuzabalegiak dirala. Baina berak argi dauka hori zegaitik egiten dauan: «Txarto dagoela esanda zer egiten dok, ba? Jentea animatu eta bultzatu egin behar dok, batez be barriak diranean». Bere gustoko idazleak nortzuk izan dituen itauntzean, ez da zalantzarik izan:

-Zaitegiren lanak gustora irakurri ditut. Orixerenak be bai. Lizardirenak zetan esan be ez. Gero mugaz bestaldetik Etxepare gaztea, ez antzinakoa, gerra aurrekoa baino. Eta Bizkaian, ba, Ibargutxi, Manterola, eta abar.

-Eta oraingo literatura?

-Gazteak badagoz gaur polito idazten dabenak. Baina halako zerik, badaezpadakorik, ez dot irakurten. Astirik be ez. Filosofi kontuak eta sarriago irakurten dodaz. Mamina daukenak. Maminik sometan ez badautsot, laster izten joat bertan. Esaterako, Nemesio Etxanizenak oso atsegin jatazak.

-Eta euskeratik kanpo? Ze zu hainbat itzulpen egina zara, grekoak, latinoak eta abar.

-Bai. Klasikoak esaten jakenak. Dante be oso gustora irakurri izan joat. Hortik aparte, atseginen izan dodana Tagore dok.

-Nobelak eta apenas lar maite dozuzan.

-Zegaitik? Tentabidea ekarten dabelako eta holan?

-Ez dakit, ba. Zeuk dinozu hori.

-Ez. Fraileei ez dautse tentabiderik ekarten.

-Fraileek ez al dauke, ha, tentazinorik?

-Eukiko dabez, baina nik ez dot eukiten. Zegaitik eukiko dabe, ba? Ni batez be olerki zalea izan naz, eta itzulpenak be hortik egin dodaz batez be.

-Inoz entzun dautsut antzerkiak be egin dozuzala.

-Batzuk egin dodaz, bai. Hogeta bost antzerki labur argitaratu nebazan, baina hori eskatu eustelako zen gehien bat. Andereñoak eta lan bita etortzen ziren, umetxoentzat antzerki edo zeozeren bila. Orduantxe argitaratu neban liburu hau hogeta bost antzerki laburrez. Liburu polita da. Neuri ondoen begitantzen jatazanak sartu nebazan.

Aita Santi sasoi batean herririk herri asko ibiltzen zen, han hemen sermoiak eginez. Herriko jaietan eta halan bazen, beti izango ziren ikuskizunak, eta abadetxean edo ohiturea zen etxean, bazkari eta lagunarte ederrak be bai, baina beti ez ei zen holan izaten. Behin, Logroñon egoela, Gasteiz ondoko herritxo batera joan zen sermoilari. Egundoko beroa eta oinez joan behar. Abadeak bidera urten ei eutson. Bazkaria abadetxean, abadeak eta biak, neskameak zerbiturik. Edateko, ura ipini ei eban, eta ardaorik bazen be ez. Baina han goian botila bat ikusten ei zen, eta denpora guztian harexeri begira. Azkenean abadeak: «Felisa! Ataraizu, ba, ardaoa!» Hiru-lau bider agindu behar izan ei eutson. Halako batean atara eban, baina, azken-azkenean zenez, gehiena han gelditu ei zen. « Halako egarririk sekula ez joat pasatu» -dino aita Santik, gustora barre eginez.

-Aizu, Aita Santi. Lehen komentuak ganezka egozan, eta orain erdi hutsik. Ez al zarie triste aurkitzen?

-Triste zegaitik? Bai. Lehen korua bete-beterik egoten zen, eleizan be errezkadak izaten ginen, eta jantokian be bardin.

Orain hamairu batzen gara. Gure ardurea, jana, garbitasuna, eta abar mojek daroe. Ondo bizi gara.

-Harrikoa eta zeuek egiten dozue?

-Ez. Orain ez dogu egiten. Lehen bai egiten genduzan holako gauzak, baina orain zaharrak be bagozak-eta! Baina gure geletan, esaterako, inor ez da sartzen. Hori dana bakotxak egiten dau. Jantokia zerbitu eta jaso gaur be geuk egiten dogu, baina sukaldean mojak dagoz. Orain gitxiago gara eta errezago da dana.

-Gitxiago eta adintsu samarrak asko. Horrek batzutan apur bat eragingo dautsue, ezta?

-Zahar samarrak gagozelako, hil egingo garela edo pentsatu?

-Ez dakit, ba, halako pentsamentuak... Gazteekaz ibiltea ez al jatzu gustetan?

-Hi! Gu hilteko sasoiatik pasatuta gagozak, eh?

-Hilteko sasoiatik pasatuta?

-Bai. Aita Mateok larogeta sei, Aita Luziok larogeta bost eta nik lau egin behar. Badagoz gazteagoak be, eleizako gauzak eta beste lanak egiteko. Baina gu hirurok hilteko sasoiatik pasatuta gagozak. Nik hilteko konturik pentsatu be ez joat egiten. Orain larogeta hamarrera heltzeko pentsamentua, gero hamabostera, eta holantxe etorrialak ikusi.

-Eta egunez egun, zer bizimodu klase egiten dozue komentuan?

-Komentuko bizimoduak bardin jarraitzen dau. Goizean jagi, errezuak, meza komentuala, eta holan. Guk zaharrok ez daukagu obligazionirik, baina joan egiten gara.

-Eta otoitzak eta diziplinak eta guzti horrek bardin jarraitzen dan?

-Lehen lez, bai. Lehen gauerdian jagiten ginela eta orain ez. Holako zer batzuk aldatu dira, baina bestela ez. Ordena guztian horretara da eta guk be holantxe jarraitzen dogu.

-Zuek zeuenean, beraz, mundua aldatu arren.

-Mundua ala mundukoak? Gu munduagaz gabizak, hi! Ez mundukoakaz!

Bizkaiko Zornotzan, Larrako komentura bisita bat egin gura badozu, mundukoakaz ibiltzen be badakien karmeldar kontulari bat han aurkituko dozu. Arin ibili beharrik ez daukazu, hilteko sasoiatik pasatuta dago-ta.

*Xabier Amuriza*

## ALFONTSO IRIGOIENEN POEMAGINTZA (Orbel eta Orriren azterketa)

Poema bilduma hau, 1980 urteko Felipe Arrese Beitia sariduna, egileak ohar egiten digunez 1980.eko otsailaren 16an bukatua da, eta bigarren argitalpen bat izan du 1985.ean (zeinari lotzen gatzaizkion).

Gutziz, 42 soneto dira (588 verso hain zuzen ere). Horrez gain, bi soneto («KOMENI OMEN ZAIONA.» eta «BILI DABIL.») bukatu gabeak edo irakurleak osatu beharko dituen horietakoak dira. Beste bi poema, kopla zaharrak (izenburu gabeak biok). « GAU TA EGUN.» sonetoaren bukaeran, beste bi kuarteto dauzkagu (hasierakoan neurri berekoak). Guztion buruan edo atarlan, « PATUA.» multzoa egiten duen verso libreko poema irakurten dugu, gehienbat heptasilaboz eta dekasilaboz osatua.

Lan honetan, sonetoak izango ditugu, batipat, aztergai.

### 1. NEURRIAK

Esan bezala, 42 soneto dira, gehi bukatu gabe diren biak. Egileak darabilen neurria bat bera da verso guztiotan barrena: dodekasilaboak dituzu, 7 gehi 5 erritmorra guzti-guztiok ekarriz. Begira kuarteto bat adibide gisa:

«Burdinarikan balu/balizko olak oporrean guz-  
tiok/zoriz geundeke, asmo balizko oro/jarririk  
tente, ez du baina biderik/jokoan bolak.»  
(«OSINA.»)

Lehen alderdiko multzoa heptasilaboa da, eta pentasilaboa bigarrena.

Zazpi gehi bost silabako dodekasilaboak sortzeko, erregela edo lege fonetiko batzuen barruan jokatu du poetak.

#### 1.1. Diptongoak

Euskal fonetikak aztertu ohi dituen beheranzko diptongoek silaba bakar baten balioa dute, ondoko verso honetan ikusten edo entzuten den moduan:

1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	(IBAIA.)
E-	tsai	e-	zin	haut	i-	zan	hau-	rri-	de	bai-	no.	

Beheranzko *ai* eta *au* diptongoek silaba bakar baten balioa dute, eta horrela gainetiko kasu guztietan ere. (Ikus, edonola ere, *Sinalefak* eta *Rimak* atalak, beherago.)

#### 1.2. Hiatoak

Oro har, guztiei eutsi egiten zaie, herriak, eta modu berezi batez Arratiakoak<sup>1</sup>, norengandik jaso baitzuen Alfontso txikitari, egin ohi duen eran.

Segidako versoko hiatoek, aliterazioaren indarra ere izango dutenak, dira adibide:

«Inguruko guztiak, txilio ta min» (ATZERAKA.), arratziarrek «Inguruko guztiak, txilio ta min», edo antzeko moduren baten, ahoskatuko dituztenak.

Euskal fonetismoek adierazten dutenez, goranzko diptongorik ez daukagularik, edo ez egiteko joerakoak garelarik, maileguetakoak ere bitongatu egiten ditugu, eta joera horri atxekitzen zaio poeta: «tragedía» (DESEGIN BAT, 2), «misterioz» (BAT HIRUTAN BANATZEN..., 2), «Frantziako» (Id., 7). «Lamía» (LAMINERREKA, 1), «loría» (INGREN LANA, 11), «tragedien» (EKINEAN, 3), «Inaziok» (KOMENI OMEN ZAIONA, 2) eta «jesuitak» (Id., 3) hitzek, jatorrizko hizkuntzan goranzko diptongodunak badira ere, gure hizkuntzan erroa hartu dutenean, bokale elkarketa hori hiato eran ebatzitzen dute, eta horrela erabili ditu autoreak.

Ez da, ordea, jokaera bera segitzen beste zenbait maileguren kasuan, jatorrizko diptongoa gorde egiten baitzaie, goragoko jarrera herritarrari, beste «kultoago» bat kontrajarriz: «Gréziako» (DESEGIN EZIN, 1), «triángulo» (BAT HIRUTAN..., 14), eta (ETA NOLA DEN, 2), « lesbiána» (Id., 7), «hiéofantetzakoek» (ETA ARI DA, 9)...

(Dudarik gabe aukera egin da, modu herritar eta ez herritarraren artean, segidako bi verso hauek erakutsiko duten moduan:

«Ta Greziako jainko bat bezala dator / tragedia herrira etsaien bridez», grekotikako bi hitzen diptongoei trataera edo ebakiera desberdina emanez: «Grézia» baina «tragedia».)

(Ikus, beheiago, *Sinalefak*.)

<sup>1</sup> Modu egoki batez agertu zuten Zeanuritarrek ebakiera berezi hau 1992.eko uda honetan herri hartan jokatu zuten *Iparagirre hegalaria* antzerki kantatuan.

### 1.3. Sineresiak, apokopeak eta sinkopak

Hikako aditz forma bitan, sineresiaz edo antzeko zerbaitez baliatzen dela esan daiteke, goranzko diptongo bihurtzen baititu bi hiato: « niékinan» (LAMINERREKA, 12) eta « baniékin» (HIRI MINTZO NATZAIN, 1).

Joera gogorra du herriak, bereziki Gipuzkoa aldean, eta gero eta hedatuago bihurtzen ari da, --a organikoa ezabatzeke, eta apokope hori egiten du poetak ere bi kasutan: «utopiren» (TXUN-TXUN, 9) eta «hipokresirik» (BIDEAN NUEN PENTSATU, 13).

Euskara Batua izeneko hizkuntz norma ezarri denetik, edo ezarri ahala, zenbait euskalkitan biziago diren sinkopa batzuk ber-egin egin ditu euskara literarioak. Irigoienek, honetan, bertsolari ohiturari jarraitzen dio «--bertsolaritzan nintzen hezi naikoa» dio dodekasilabo baten- kasu bakan batzutan hitz sinkopatuak erabiliz: dirudienez neurrira makurtzeko, «nastua» (IBAIA, 11), «naikoa» (LAMINERREKA, 8), «értuz» (ZULOKO GUDUAN, 4) eta «larrek» (PILO MONTOKAK, 12) (baina « lahar» (BETI, 12). Rima edo hoskidegora etorteko, ostera, « gauz» («gauzez» barik) (PILO MONTOKAK, 13).

### 1.4. Sinalefak eta dialefak

Joera nagusia dialefa egitea da, hots, ez egitea sinalefarik. Aurreko hitzaren bukaeran -a bokaleak hots egiten duenean, kasurako, eta has dadila segidako hitza edozein bokalez hots eginez, eta dialefa egingo du:

- «Zuberoa Lapurdik izena/alfer» (BAT HIRUTAN..., 6).
- «Frantziako legean ez dira/ezer» (Id., 7).
- « Nora bota/ordea, nongo ataka» (ZULOKO GUDUAN, 7).
- « Argitara/iragan ahal denean» (ETA ARI DA, 8).
- « Gorriska da zerua, kea/ugari» (FURIA, 12).

Baina badira kontraok ere, nahiz eta, seguruenetik, askoz ere gutxiago diren. Ikus, adibidez,

- «esanikan Madrilen eskuin eta \_ezker» (TXUNTXUN, 5)
- «Badinagu hiretik izan eta \_izen» (HIRE BAITARIK, 12)

Badira bi kasu, zeintzuetan sinalefa egiten den, ondorioz itxura baten goranzko diptongoa sortuz. Itxura baten diogu, zeren eta bi kasutan behintzat, konposaketa moduren bat baita, eta, horrela, sinalefa eginez, batasun sendoagoa markatu nahi du poetak:

- «haragi \_hezurren hormak ilunbez hebain» (HARA BIDEAN, 7).
- «buruzagi eginik eguzki\_azpiko» (ETA ARI DA, 11).

Bi kasuetan aglutinazio legeak gehiago egiten dio fonetikari (?), batasun kontzeptuala sendotuz.

Antzeko zerbait gertatzen da beste bi versotan ere, non, nahiz eta sinalefak goranzko diptongoa sortzen duen fonetikoki, semantikoki, ostera, alderdi bata desesanguratzen duen, bestaldera indar gutzia bultzatzeko:

« gogoa zutik dela altzairu \_eginik» (DESEGIN EZIN, 11).  
«mozturikan bizia ero du \_edozein» (ATZERAKA, 8).

(Aurrenean, «altzairu» indartzen da eta bigarrenean « du » , aditz laguntzailea, ezabaturik bezala gelditzen.)

## 1.5. Morfologiaren batasuna

Euskara Batua deritzona indarrean jarri ahala, hitzen eta aditzen morfologia agerpen bateratua hartuz doa. Oro har horretara makurtzen da sormen poetikoa eta hori egin ez dezanetan baliabide estilistikoren bat bilatzen du.

### 1.5.1. ETA eta beste

Lau forma hartzen ditu juntagailu kopulatiboak Alfonsoren sonetoetan (herri hizkuntzan eta beste idazleengan bezala): «eta», «ta», «da» (GAU TA EGUN sonetoan *betan*, kasurako) eta «t'» («seme talaba», (BETI, 7)) Bai « da» («ekin da ekin», GAU TA EGUN, 2) bai «t'» laburdurak balio espresibo eta estilistikoa daukate (fonetikoa eta elipsiarena).

(Inoiz neurri-erreztasunengatik euskalkien araberako hitz desberdinak: « jaungoikozko» (HARRIAK JO, 13) baina «jainko» (BAT, 12), edo « jardungo» (ETA ARI DA, 10) baina «iharduki» (HANDIK, 7), edota «ostendutera» Bizkai mendaldeko forma (AI!, 11) agertzen dira.

### 1.5.2. Aditz morfologia

Araututako Hizkuntzaz kanpoko zenbait aditz formak giro arkaiko eta kulta, erritmoa laburtzeaz gain, demaiote poemari: «leite» (BIDEAN NUEN PENTSATU, 14), «daite» (ETA ARI DA, 4). « ginate» (EKINEAN, 5)... Beste zenbaitean, bizkaierazko formak entzuten ditugu, rima laguntzearen gehien bat: « dau» (GORAKOAN, 12), «haz» (HALA DOA, 14), « dakaz» (ATZERAKA, 4), « gabiltz» (EKINEAN, 11)... Badira bertsolaritzaren oihartzun, besteak beste, direnak ere: « garadela» (GORAKOAN, 9) eta «badirade» (BETI, 8) (azken hau rima laguntzeko). Eta, azkenez, forma sinkopatua: «nituzken» (HIRI MINTZO NATZAIN, 3)<sup>2</sup>.

## 1.6. Neurri gaitzak eta ohar bat

Neurri moldakaitza, edo gainetikakoen erritmotik kanpoko bederen, dauka «baitote ematen polit politikan» (HANDIK, 4) dodekasilaboak. Irakurleak « noiz» bat gehiago errepikatu behar ote duen dirudi beste honek: «Noizarte, noizarte, noizarte hala?» (ZUHAITZA, 10). Hots onomatopeikodun honetan, harridura («!» ) ikurrak silaba baten balioa duela esan daiteke: « Durunba: baunba! Oihartzun gorra.» (UPARANDIK BILBORA, 2). Eta sineresiaz, agian, baliatu da azken bi hauetan: « ernai goaz guztiok aldatsean gorra.» (ZAHARRA BERRI, 14) eta «Arma soldataz deabru erdaldun fina» (HAN, 12), biotan -ea-- hiatoak sineresi eran ebakiz.

Ohar bat gehitu nahi dugu bata latinaz eta bestea gazteleraz ere baliatuz diren bitaz: «per secula seculorum aldi luzcan» (DESEGIN EZIN, 14) verso honetan, ez du silabaren baliorik «sécula» honen postonikoak, latin vulgarean bezala. Beste honetan: «sarraskia kalean, total para qué!», azken «qué» ez da, erdaraz den legez, bi silabaren balioduna, zeinak esan nahiko duen Alfonsorentzat silaba guztiek balio berbera dutela euskaraz.

Ikusitakoaren ondorio gisa, Irigoienek soneto hauetan darabilen neurria 7 gehi 5 = 12 silaba dela esan ahal dugu. Era berean, neurriak hartzeko oinarri edo arrazoi fonetiko bakarra silaba dela esan dezakegu, goragotxoko «qué» horri eman zaion trataerak garbi uzten duen legez<sup>3</sup>. Hau da, Arte Nagusiko neurria, dodekasilabo hain zuzen ere, etena edo zesura azpigarren silaban egiten duelarik.

Dodekasilabo modu hau, hots 7 gehi 5 delakoa, erdaraz behintzat aintzinatean Sor Juan Inés de la Cruzek erabili zuen; nahiko ugari, ostera, agertzen zaigu Romantizismoaren garaian, eta, gehiago, oraindik, darabilte Modernistek. «Verso de Seguidilla» ere deitu izan zaio, eta Rubén Daríok «Elogio de la Seguidilla» titulopean erabili ere egiten du<sup>4</sup>.

Horrez gain, R. Darío honek sonetorik ere asmatu zuen era honetako neurriekin, Azul... -en argitara eman zituen «III Walt Whitman» eta « V Salvador Díaz Mirón» izenekoak, hain zuzen ere<sup>5</sup>

Modernismoa ondo ezagutu zuen Lauaxetak ere egin zituen sonetoak, zortziko txikiaren neurriez baliaturik, hots, 7 gehi 6 neurrikoak, batzuek: «Arantzas josiriko/amets ain gosuak», kasurako, «LUDI AMESKORRA» r<sup>6</sup>.

Heptasilaboen eta pentasilaboen gurutzaketa honek sortu ornen ditu euskaraz poesiarik armoniosoenak, Leizaolaren ustetan<sup>7</sup>. Euskal poesia -dio- egokiena, verso luze eta laburren konbinaketak ekarri du, zeina, dudarik gabe, azenorik ezaren ondorio baila: Adibide bezala, Satarkaren bertseta hau ematen du, lehendabizi:

«Oso politak dira  
zure begiak,  
anitz bikañak eta  
maitagarriak.»

Oxobik ere neurri berberarekin eman zuen «Balea ta axeria» fabula:

« Behin bazen bele bat  
bele bat beltza,  
pika bezin ohoina  
bainan zozoa.»

2. Ikus, baita ere, «zat» (BADATE, 7). Sabino Aranak ere ondo ikusten zuen euskalki desberdinetako aditz morfologiaz baliatze hau:

«Licencias métricas (...) 3.8 La de poder emplear en una misma composición voces de distintas variedades del dialecto en que se versifique.»

(ARANA GOIRI, S.: «Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino» in *Obras Completas*, Buenos Aires, 928 eta 930.etan).

3. Sabino Aranak zioen moduan, «La unidad del metro euskérico es siempre la sílaba», (in *Op. cit.*, 926.ean).

4. Argibide gehiagorako, ikus NAVARRO TOMÁS, T.: *Métrica Española*, Barcelona, 1991.

5. Begira kuarteto bat:

«Tu idea tiene cráteres y vierte lavas;  
del arte recorriendo montes y llanos,  
van tus rudas estrofas jamás esclavas,  
como tropel de búfalos americanos».

(Ikus in *Azul...*, (Madrid, colección Austral, 1972, 150-152. orrialdeetan.) Lehen argitalpena, 1888.ean ezagutu zuen.

6. Jon Kortazarren edizioa, Zarautz, 1985, 68.ean.

7. LEIZAOLA, J. M.<sup>a</sup>: *Estudios sobre la Poesía Vasca*. Buenos Aires, 1951, 76-77 eta 109-128 orrialdeetan.

Jo zuen begiz, baita ere, Leizaolak Marcelino de Soroak 1897.ean argitaratutako poema bat, zeina izan baitaiteke Irigoieneren sonetoen eredu ez bada, bai prezedente edo aurretikoagoa. Honelaxe da:

«Treñeratik beteta duben saskiya  
dijoa kalietan neska liraña  
gogotikan ojuka -¿nork arrek aña?-  
«txardin oraingoxia, bizi-biziya».

Sayets aldian tratu dizdizariya  
t'eskeintzian azkarra du mingaña:  
«-¿lruban?-... ez det aditzen... ¡ez alajaña!...  
« ¡jiru kuartuan! ¡ja, jai! txardin andiya»...

Oñ'utsik, gona motzak euriya astian,  
buruban pañelua bilduba atzera,



besoak agerian, poztasunian,

dabil presaka beti gora ta bera,  
zerbait zai katubak aldamenian,  
saskiya ustua, ta berriz korri kayera.»<sup>8</sup>.

Soneto «klasikoek» bezala, bi kuarteto, bi terzeto. Rima kontsonantearen banaketa edo distribuzioa, ABBA AB-BA CDC DCD. Neurriak, baina, 7 gehi 5, gorago esan dugunez erromantizismoan erabili samarra. Gazteleraz ohi bezala, beti egiten du sinalefa, (inoiz ere egingo ez duena etenean).

Neurri berbera darabil Serafin Barojak ere poema baten. «¡ARRATS MUGARRIA!» titulopean eman zuen argitaratu J. Manterolaren *Cancionero Bascon*. Hona hemen estrofa bat:

«¡Arrats izugarria! ¡Ordu tristeak!  
¿Nora begiak jaso, penen kupiran  
malkoz beteak,  
zeruak ere bada etsai baziran?  
¡Uri leial gaisoa garretan dana!  
ta zeru gorrak,  
egitz gogorak,  
irabiatzen ditu berriz gu gana  
elementen boladan suzko tanborrak.»<sup>9</sup>.

Poema honek sarrera-artikulu bat du, gazteleraz, seguruenetik J. Manterolak berak egina. Ematen digu hor metrikari buruzko iritzirik ere: «Su oda, escrita en estrofas iguales de à nueve versos de à doce y cinco sílabas, simétricamente combinados con rima perfecta, es muy apreciable como descripción, su versificación es muy correcta y el lenguaje bastante puro.»

(Manterolak dioen «verso de à doce» horiek ere 7 gehi 5 silabako ditugu inoiz ere etenean sinalefarik egiteke.)

Bazuen, ba, Irigoienek soneto hauek egiteko eredurik. Honela jokatzeko arrazoa, baina, edo iturria, edo horietako bat behintzat, betsolaritzako zortziko txikiaren inpareetako heptasilaboa eta zortziko nagusiaren inpareetako verso erdi edo hemistikioaren pentasilaboa gurutzatzea izan daiteke.

<sup>8</sup>. LEIZAOLA, J. M.: *Op. cit.*

<sup>9</sup>. Ikus in *Cancionero Basco*, Serie 111, (1880), 320.ean.

## 2. RITMOA ETA PAUSALDIA

Gorago esan dugunez, verso hauen ebakiera 7 gehi 5 = 12 da, neurri-lege bakarra silaba dutelarik. Zazpigarren silaba ahoskatzean bukatzen da lehen zati edo hemistikioa, inoiz ere une honetan sinalefarik egin gabe, eta 12 versoan egiten da pausaketa versala.

Gure ustez, 6. silaba azentoduna da, edota irakurketa hori egin geniezaioke. Begira adibide bat:

« Mundu hau latza báda/haren kondena:  
-Jaungoikoak anpára/hazala gosez,  
mundu hura badákik/heuretzat dena.»  
(INOREN LANA, 12-14).

Une ritmiko honetan, hots versoz-verso ber-datorkigun seigarren silaba azeno ritmikodun honetan, erdal mailegurik aurkitzen bada<sup>10</sup>, azentuaketa horri atxekiko zaio. Hona hemen argi-argiak diren zenbait:

«Etsai beraren kóntra, koskor ta harri» (HANDIK, 5).  
«armarriaren fórman orduko arkutan» (EURIA, 6).  
«Etsaiak baitu míto fetitxezko bat» (BAT HIRUTAN..., 12).  
«Apoiatzeko púndu baten arkuan» (BIDEAN NUEN PENTSATU, 9).

Eta beste hainbat ere entzun ditzakegu.

10. Euskaraz azentoak futzionaltsun urria, edo ezereza, badu ere, gazteleraz berebizikoa du. Hau dela eta, geure ustez, seigarren honetan erdal maileguak tonikoak izateak diogun ritmo hori segurtatu egiten dute.

Oraindik oraintsu ikasi izan du Xabier Altzibarrek bizkaierazko idazle klasikoengan idatzian markatutako azentua-  
ren funtzionaltasuna eta «eskasa» duela ikusi izan du. (ALTZIBAR, X.: *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, As-  
tarloatarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak*. Bilbao, 1992. 620.ean.)

Era berean, maileguen azentuaketa tokiz aldatu egiten da, erritmoak hala eskaturik:

«Ikusi du frailérik anitz kaletan» (TXIMISTA, 12).

Hau honela balitz, edota irakurketa honela egingo bagenu, balirateke zenbait verso antirritmiko. Zera esan nahi dugu: seigarren silaba azento ritmikoduna baldin bada, batez ere zazpigarrena atonua izan dadin esperoko genuke, eta, haatik, badirudi ez dela horrela zenbaitetan. Begira non:

«Seniderik ez zen hil, Gernikan hotsa» (UPARANDIK BILBORA, 9).  
«gure baitan badun hik ohe ta habe.» (HIRE BAITARIK, 11).

Bi kasuotako zazpigarren silaba monosilaboa, ezin da tonikoa baino izan, geure ustez. Beraz, gorago esan du-  
guna onartzen badugu, azentuaketa antirritmikoa litzateke « híl» eta « hik» horiena. Honela balitz, dudarik gabe poetak  
ritmoaren bortxaketa bidez bi hitz horietxek nahi ditu indartu, eta irakurlearen arreta horraxa deitu.

Badirudi, baita ere, hamabigarren silaba ere asko eta askotan akutotzat har daitekeela. Erdarazko « qué»ren ka-  
suaz gain (UPARANDIK BILBORA, 14), hortxe ditugu monosilaboak ere: « hau», «nau», « gau», exenplu batjartearren,  
HARA BIDEAN sonetoan.

Euskaraz azentua hain mugierreza delarik, ez dugu uste ezin denik egin, segidakoaren moduko irakurketarik:

«Taupadaka bihótza/pizkarri erátz,  
«ez garela herrían/elkarren etsái,  
«bakoitzari beréa/emanik lasái,  
haritz para hazíko/bago ta saráts»  
(ERNETZEN, 5-8).

Horretxek dira, geure ustetan, soneto hauetako pausaketa eta azentuaketa ritmikoak: seigarren silaba da azento  
ritmikoduna, zazpigarrenean etena edo pausaldi laburra, hamabigarrenean pausaldi versala, eta, agian, hamabigarren  
honetan, baita ere, azento ritmikoduna.

## 2.1. Estikomitia

Perpaus edo sintagmaren batek verso osoa bete dezanean, estikomitia deritzona daukagu. Hauxe da jokaera  
nagusiena, eta kasik bakarra, herri poesian eta, gehienetan, kantuz ematen denean. Soneto hauetan ere, besteetan be-  
zala, horixe litzateke ateraldirik «normalena», segidako kuarteto honetan agertzen zaigun moduan:

«Txontzon jaun hori, hautso gogor hartz horri,  
agian han hark mende hartuko laster,  
agian duk heziko, ez hadi asper,  
berde dadin itxuraz, zuri ta gorri,»  
(TXUNTXUN, 1-4)

Sintagma multzoek, kasu honetan, komen () laguntza grafikoa ere badute. Kontu izan, baina, esaldia ez dela bu-  
katzen estrofarekin, eta, beraz, pausa estrofikoa eta sintaktikoa ez datozela bat, bertsolaritzan gertatuko ez litzatekeena.

## 2.2. Enkabalgamendua

Enkabalgamenduari buruz badago literaturik beste hizkuntzeta<sup>11</sup>. Segurenetik, ez dute enkabalgamendu berek indar estilistiko bera hizkuntza guztietan, eta, guri dagokigunetik, ezta euskaraz ere. Hala ere gure iritziz, argiak dira zenbait Irigoienen kreazio poetikoan.

HARIAK JO sonetoan irakurten dugu kuarteto hau:

«Erdiak eta beste hainbeste harrik  
zerutikan jautsirik dorrea jo du  
gizaldirik gizaldi: izate modu  
desberdina gizonek, zahar ta berririk.»

Lehen bi versoetan ere izan daiteke enkabalgamendu moduren bat, eta argiago eta bortitzago da hirugarren eta laugarrenaren artekoa: «izate modu» sustantibo konposatuagandik versoz eta ritmoz banaturik entzuten dugu haren lagun den «desberdina» adjetiboa. Ritmoaren «bortxaketak» estrofaren hiperboleekin bat egiten du.

KOSMOGONIA sonetoan, lehen bi estrofetan hiru enkabalgamendu banarekin topo egiten dugu, «noren» izenlaguna laguntzen duen izenarengandik banaturik:

<sup>11</sup> Oro har estikomitiari oposatzen zaio eta egitura sintaktikoa eta versala bat ez datozenean ematen den tentsio poetikoari deritzo. Hona hemen gaztelerazko adibide bat:

«Y mientras miserable-  
mente se están los otros abrasando  
con sed insaciable  
del no durable mundo,  
tendido yo a la sombra esté cantando.»  
F. LUIS DE LEÓN.»

Ikusten denez, hitza verso bitan zehar banatu da: «miserablemente». hizkuntza arruntean segidan, pausaldirik gabe, ematen denean..

«Hirurehun bat mila kilometro da  
segundoko jainkoa fisikarien  
absoluto horretan. Neutrin fotoien  
barrenean doala azalduko da

ifernurik gabe, diz diz begien  
soari tinko, masa duela hutsa,  
haize beltzak bezala oldar ta butza,  
argi dela argia zero argien,»

Enkabalgamenduetan oinarriturik jaso dira bi kuartetoak: «noren» kasuak, hots, «fisikarien» , «fotoien», «begien», izenarengandik ritmikoki bananduak entzuten ditugu. Horrez gain, perpausa bi estrofetan zehar banatzen da.

Kasu honetan, tentsioa kosmogoniaren handitasuna indartzera etor liteke, alde batetik, baina, baita ere, -geuk us-tehanditasun horretan egon daitekeen «batasuna» hestutzera ere. (Sonetoak bukaera plazerteroa dauka.)<sup>12</sup>.

Enkabalgamenduzat har daiteke jarten dugun azken hau ere, zeinak irakurketa geldierazten digun, besteak beste hauxe ere poetaren asmoa dena<sup>13</sup>

«Arnasazko jainko bat datorren usain  
hartua du anitzek. Jainkoa balitz  
abegi ona luke, arrera bikain.»  
(BAT, 12-14).

Oker ez bagaude, «usain» , mugatzailerik gabe, «hartua» ri guztiz lotuta ahoskatuko genuke, zeina pausaketa versalaren aurka datorren.

### 3. RIMAK

Gai honetaz hasi baino lehen, ohar bat isofonieiei buruz. Txistukari frikariak (s, z) eta afrikatuek (ts, tz) oso-osoan rima lezake euron artean, nahiz eta grafia desberdina izan, herri mailan (?) hots berbera edo oso antzekoa dutelako, edo, bertsolaritzan behinik behin hori egiteko ohiturarik badelako. Honetara, «esker» eta «ezker» TXUNTXUNen, «hutsa», «butza», «gauza» eta «deutsa»

KOSMOGONIAN, hoskidetza osokoak dira. Jokaera hau «herritarra» eta ez Hizkuntza Arautuan oinarritua, izango litzateke, bereziki Bizkaian, non, aspaldi xamarretik galdua baita afrikarien arteko oposizioa alde batetik, eta frikarien artekoa bestetik<sup>14</sup>. Antzeko zerbait esan daiteke -au hitz bukaerako diptongoari buruz, zeinaren- u bokalerdia, deklinatzean, herri ebakeran-b-bihurtzen baita: «Baba», ondorioz, BETIn.

<sup>12</sup>. Enkabalgamendua hortxe dago, bista-bistan. Horrek sor lezakeen inpresioa, ordea, ez da bat bera izango irakurleengan, ezta autorearengan berarengan ere, idatzi zuenean, geroago eta gaur egunean...

<sup>13</sup>. Irakurketa desautomatizatzea da hizkuntza literarioan lehen helburuetarikoak, Errusiar Formalismoak irakatsi bezala.

#### 3.1. Kontsonantea edo hoskidego osokoa

EURIA, ZAHARRA BERRI eta TXISMISTA sonetoetako rima kontsonantea edo hoskidego<sup>15</sup> osokoa da, hots, azken bigarren silabako bokalerik aurrera, bokale eta kontsonanteen hotsa, rimadunen versoetan, errepikatu egiten da. Hiru sonetootan, tartekatu egiten dira rima morfologikoak (ugariagoak, agian) eta organikoak. Aberatsenatarikoa ondoko kuarteto hau izan daiteke:

«Irigoienen butza garrez nabari,  
mendebalen erauntsiz behera doa.  
Ifernuak duela zabal ahoa  
barrura da iragan, hantxe da ari.»  
(TXIMISTA)

Kontsonantzia osoa da eta ez du hoskidego morfologikorik, segidako beste honetan ez den moduan:

«San Antongo zubia, iraun duena  
armarriaren forman orduko arkutan,  
azpitikan ibaia hartuz eskutan,  
itsasora bidean labantzen dena.»  
(EURIA)

Erlatibozko markak, *-ena*, eta «non» magagabeek, *-tan* (-u- organikoari gehiturik) lortzen dute kontsonantzia.

<sup>14</sup>. 1960.eko Bertsolarien Txapelketan, «beraz» eta «beratz» parekatzen ditu Xalbadorek, «eginkizun» eta «estuasun» Basarrik, «biotzian» eta «etxian» Xalbadorek, e.a. (Ikus Zabalaren edizioa, Zarautz, 1961, 36, 117 eta 89. orrialdeetan.)

<sup>15</sup>. Lizardik erabili ohi zuen *hoskide* hitza, rima ordezkatzeko:

«Orrelako estualdietan ezer ezta nekegarriagorik, ezer ez lazkarriagorik itz oskideen edo kontsonanteen eizketa gordiña baño.»

(in *Itz-lauz*, Vitoria, 1972, 29.ean.)

#### 3.2. Hoskidego deigarria

Zenbait soneto, rima kontsonantedunak ez badira ere, fonema bakar batengatik dira horrela, eta autoreak, antza denez, jakinaren gainera horrelaxe utzi ditu. Bi sonetotan, sudurkarien kontua da: BIDEAN NUEN PENTSATUn, «suma»k, «etorkizuna» eta «jentiltasuna»rekin rimatu behar du. Soneto baten (HIRI MINTZO NATZAINen), -k- fonema hoskidego gabe gelditzen da, hots, «bidaliak nik» verso bukaerak, «izanik» bukaerarekin rimatu behar du.<sup>16</sup>

### 3.3. Hoskidego deigarriagoa

Soneto baten, rima dela eta aparteko jokoa joko metalinguistikoa, edo- autoreak sortu nahi izan duelakoan gauden. GAINENen aurkitzen da. Kuartetoetan, rima kontsonante eta exuberantea da (ikus «gibelaldea» «taldea», «galdea» eta «porrusaldea», hoskidegoa hiru silabetara luzatuz). Baina bi terzetoetako azken rima asonantea, hots, «arte», «harpe» eta «bitarakarke» hitzetan oinarritua, kontsonantzia hiru fonema leherkari gorretan -ez dago besterik- etetan da: poeta autozitatut egiten da soneto honetan («-Irigoién hor doa, badiotela.»), «porrusaldea» «mariurralak»... bezalako irri-konnotaziodun hitzak darabiltza eta badirudi Fonetikan oinarritutako joko fonetiko-zientifikoak egiten dituela.

<sup>16</sup> Jorge Manriqueren «A la muerte del Maestro de Santiago, Don Rodrigo Manrique, su padre» delakoetan, «discretos» eta «subjectos» datoz rima, baina, seguruenetik, azkenaren grafia kultista da, eta herri mailan -c- hotsa, posizio horretan, ezabatua zatekeen. Fernando Herrerak «Egito» eta «infinito» dakartza rimakide (in «Por la victoria de Lepanto»), grafia fonikoa, eta ez etimologikoa, erabiliz.

### 3.4. Hoskidegoak eta beheranzko diptongoak

Gaztelera beheranzko diptongoak urri diren heinean, dira ugari euskaraz. Zenbait sonetotan, hoskidegoa osoa izango litzateke, beheranzko diptongo hauek modu berezi batez entzuten baditugu.

Alde batetik, --áina eta -ina ditugu. HANen, «baina», «fina» eta «egina» ditugu iman. Antzekoa da IBAIAN gertatua: «orainarteino» «itsasoraino» eta «baino» entzuten ditugu rima. Ikusten denez, rima ez da hasten diptongoaren bokale tonikoan, erdibokalean baino.

Bestetik, -ái eta -áin bukaerak ditugu, rima, aurreko kasuetan bezala entzun ditzakegunak: «etsai», «lasai», «usai» eta «zai» ERNETZENen, eta «zain», «usain» eta «bikain» BATen. Hauetan, diptongoaren bi bokaleak kontutan hartzen ote diren dirudi, horrela izanez gero sonetoaren rima kontsonantea baita<sup>17</sup>. Gonzalo de Berceo ere, alejandrino monorrímo baten era berean jotzen du: «Reina», «ahína», «neblina» eta «mezquina» hitz zerrendan ikusten denez, rimarako «Reina»ren «-ina» harto da oinarri. Antzeko zerbait aurki daiteke Lauaxetarengan ere: «laxtanen-gai» eta «baxen alai» hotsek rimatzen dute, hoskidegoa erabili den kuarteto baten<sup>18</sup>.

Diptongoetan oinarritutako rima modu hauei, direla kontsonanteak zein asonanteak, rima bigunduak, faltsuak... deitu izan die teorikoek, ez dituztela hots garbiak eta<sup>19</sup>.

### 3.5. Asonantziak

Ez dugu uste soneto bat ere modu honetan rimatuz daukagunik, hots, hoskidegoa bokalengan, soil solik, sorturik. Badira, haatik, han hemen, hoskidego asonanteak, nahiz ez soneto osoan. Horrela entzungo ditugu «salbo» eta «txalo», GAU TA EGUNen, «bridez» eta «abilez» DESEGIN EZINen, e.a.

Joera nagusia, beraz, kontsonantzia errepikatzea da, asonantzia hauek dituzten sonetoei ere, bai baitituzte tartean.

Hauxe ere jokamolde «herritarra» izan daiteke, ez baitu bertsolaritzak asonantziak jotzen, eta rimak bi silabatarazabaldut nahi izaten dira, Bizkai-Gipuzkoetan, batez ere.

### 3.6. Homonimia rima

Hots berbera izan arren esanahi desberdina daukaten hitzak agertzen dira rimari, bi aldiz: «esker» eta «ezker» TXUNTXUNen, eta ironia puntaren bat duen UPARANDIK BILBORAn kontaktoan diren hizkuntzetan gertatu ohi diren homonimia poliglotaekin jokatzeko da: «ke» eta «qué». Ez dugu uste besterik dagoenik, edo, beste era batez esanik, alboratu egin du<sup>20</sup>.

17. Gaztelaraz, diptongoen bokale tonikoak rimatzen du, laguntzen dion bokale erdia kontutan hartu gabe. Hone-tara, «aire» eta «donaire», San Juan de la Cruzen «Cántico Espiritual»en, «aura» eta «restaura», Lopedo Vegaren «Canción»en, edo, eskuartean darabilgun arazorako argiago, «corvetas» eta «treinta», Góngorak «Hermana Marican...», «heroica» eta «logran», Lope de Vegak «Pobre barquilla mía»n, zeintzuetan, rima asonantea delarik, diptongoaren bokale tonikoak hartzen duen hoskidegoa.

18. LAUAXETA: *Op. Cit.*, 103.ean.

19. DOMINGUEZ CAPARRÓS, José: *Diccionario de métrica española*. Madrid, 1985, s.v. RIMA eta segidakoe-tan.

### 3.7. Rima unisonantea

Inon baino argiago TXUNTXUN eta TTANTAKAN utzi izan du beste jokaera herritar bat (aurrekoaren antzekoa dena). Zera da, rimari zenbait «morfema» errepikatzea, badagoelako bertsolaritzan ohiturarik, artikuloa errepikatzen den legeaz, aditz morfemak, «bat» mugagabea edo zenbakia, eta antzekoez baliatuz hoskidetza sortzeko. Lehenean, «bat» entzuten dugu rimaren une ritmikoan lau aldiz, eta bigarreanean «date» beste lau alditan, une ritmiko berean. (Bi soneto hauetan, baina, esaniko aditz morfema eta zenbaki mugagabea errepikatzen direnetan, badirudi euron aurrealdeko hitzetan barre errima moduren bat markatu nahi izan dela: «-Tren», «bat» honren aurrean, eta «-arra», «dæ» horren aurrealdean<sup>21</sup>).

### 3.8. Rimaren egitura edo disposizioa

Soneto guztietan barrena -baten izan ezik<sup>22</sup>- rima-disposaketa edo egituraketa bat bakarra entzungo dugu, zein asonante izan zein kontsonante: ABBA BCCB CDC D-D. Hona hemen adibide bat:

« Irigoienen butza garrez nabari	A
mendebalen erauntsiz behera doa.	B
lferruak duela zabal ahoa	B
barrura da iragan, hantxe da ari.	A

<sup>20</sup> Aintzinatean begi onez ikusten bazen ere, ez du entzute on hori oraintsuago. (Edonola ere, egin izan ditu horrelako rimak J.R. Jiménezek ere. Ikus DOMINGUEZ CAPARRÓS, J.: *Op. cit.*, s.v. RIMA HOMÓNIMA eta segidan.)

<sup>21</sup> Detxeparek ere, Patxi Altunaren ustez jokamolde herritarretan ihardun zuena, «Çogueri dates eta «yragan date» jarten ditu rimari «Amorosen gaztiguya» n, eta «adisquide bat» eta «gayxto bat» «Amorosen disputan». (Ikus P. ALTUNAREN edizio kritikoa, Bilbao, 1980, 86 eta 210 orrialdeetan.). Eta oraintsuago ere, «lotsatzen zen» eta «galtzen zen», Jures CASENAVE-HARIGILE, *Santa Kruz* pastoralean, 1992, 3. bertseta.

<sup>22</sup> Ai! sonetoaren rima-disposaketa aldatu egiten da eredu honetatik, eta ABBA BCCB CBC BCB egiten du. (Hemen ez da azken terzetoko bigarren versoa «solte» gelditzen.)

Tirokatuagatik haren zuloa	B
zuloa zulo dago zuloa baita.	C
Gori agertu dela haizeko aita	C
ezin iraungi daite suaren soa.	B

Osorik du zapaldu, oinez korrika,	C
itzal beltzeko sortak gorputz anketan,	D
negarrezko harana, beldurturika.	C

Ikusi du frailerik anitz kaletan	D
ilunaren gerizan beraren argiz.	-

Ez jausterik hobe da leiza haietan. D

Lehen bi esrofetakoa, besarkatua da, baina ez da soneto klasikoetan ohi den eran lehen estrofarena bigarreanean osorik errepikatzen, erdia baizik. Lehen terzetean segitzen du bigarreneko batek, eta hemengo D rima berria bigarren terzetora iragaten da. Azken terzetean, azkenez, bigarren versoa «solte» gelditzen da, ez baitu besterekin rimatzen<sup>23</sup>.

Ez dagoela kontsonantzia osorik poema osoan zehar kontutan izaten badugu, ostera, azken terzetoa monorrimita izango litzateke hiru sonetotan: GORAKOAN, ETA NOLA DEN ETA ATZERAKA: «artera», «berdean» eta «betzera» datoz, kasurako, verso bukaeran ATZERAkan, e-a asonantzia eginaz.

Garbi dagoelakoan gaude, baina, poema guztiok irakurrita, ez dagoela monorrimarik egiteko asmorik.

Ikusi dugun rima disposaketa han, inorena baino gehiago Alfonsorena berarena da, gaitz baita modelorik aurkitzerik. Hementxe beteten da, inon baino gehiago, poetak berak bere buruaz LAMINERREKAN dioskuna: «poetak gara baina, bakoitza bere»<sup>24</sup>.

Izan ere, poetak sonetoaren egiturari darraio, eredu legez: kuarteto bi, hasteko, eta bi terzeto amaitzeko. Endekasilabo klasikotik aldendu egiten da, beste asko bezala; Rubén Darío eta bestek darabilen 7 gehi 5 neurrian sartzan du hitz katea, seguruenetik bertsoaritzako heptasilabo eta pentasilaboak kontuago izanik R. Darío bera baino; bertsoaritzako «silabismoari» atxekitzen zaio, baita ere, (gaitz baitzaio beste ritmo modurik euskal azentuaketa moduarekin sotzea)... Rimen hoskidetzan erdal (?) poesiagintza kultuarengandik hurbilago ari da herritarragandik baino, baina rimon disposaketa poetak beronen buruan sortu duen eredu berria da --oker ez bagaude-

<sup>23</sup> Diptongoek hoskidetza jasotzeaz, ikus, gorago, 3.4.

<sup>24</sup> Jokaera honetaz eman izan zuen oharrak Patxi Altunak, prezeptistek ohi duten eran, «eregeletara» makurtzeko eskatuz. Ohar deskriptigoagoak egin zizkion, segidan, T. Peilenek. Biok EUSKERAN.

## 4. HITZEN HOTSA

### 1.1. Onomatopeia

Hainbat erabilten du poetak errekurso foniko hau, zenbait poematan zehar eta tonu desberdinetan banaturik. Batzuek, samurtasuna sendotzeko: «pinpirin» (GAU TA EGUN, 14), «ziri miri» (EURIA, 1), «dilindan» (ALFONTSO ERE BAI 1), eta «txiruluriri» (ALFONTSO ERE BAI, 13). Beste batzuk bizitasuna indartzeko: «diz-diz» (KOSMOGONIA, 5). Zenbait, zarata zakarra eta erritmoa gogortzeko: «tringili tranga» (ZUHAITZA, 2), «Durundua: daunba!» (UPARANDIK BILBORA, 2), «runruna» (Id., 8), «bor-bor» (IBAIA, 7), «taupadaka» (ERNETZEN, 5), «tarrapatata» (ZULOKO GUDUA, 6), e.a. Badira umorea edo, agian, ironia laguntzekoak ere: «larai laironez» (ZAHARRA BERRI, 8).

### 1.2. Aliterazioa

Utopiaren aldeko borrokarako deia indartzeko, hots berezi batzuen gurutzaketaz baliatzen dela esago genuke: «Txontzon jaun hori, hautso gogor hartz horri» honetan (TXUNTXUN, 1), hots afrikatu eta dardarkarien alternantziak, esandako borrokarako deiaz gain, euki lezake kutsu ironikorik ere. Bermutasuna sendotzera datoz, ostera, segidako dardarkariak: «amarriaren forman orduko arkutan» (EURIA, 6). Baina biguntasun edo serenitate moduren baten oihartzun nahi dute izan a/e eta o/e bokalen alternantziak: «Gares aldera gabe ohera hobe» (KOSMOGONIA, 13). Segidako versoan, ostera, txistukarien hots eztiari, sudurkarien durundioa oposatzen zaie: «dezagun sor zorion *ilunguean*».

Antzeko kontraste bat sortzen delakoan gaude, baita ere, bokale erdi irekiaren errepikapenari, leherkari, darkarkari eta sudurkarien hots katea oposatzen zaienean: «*erreketan behera*, tringili tranga!» (ZUHAITZA, 2). (Poema guzti honetan barrena da ugaria sudurkarien durundioa, esandako onomatopeiez gain.)

Azpijoko izkutuen oihartzun izan nahi du txistukarien errepikapenak, multzo honetan: «misterioz bezala» (BAT HIRUTAN..., 2). Berriz ere onomatopeiaren oihartzun nahi du izan dardarkarien errepikapenak, ondoko dodekasilabo honetan: «abioien runruna, adar gogorra» (UPARANDIK BILBORA, 8). Herri kanta bati darraiolarik, jolasari ekiten dio sudurkari eta leherkarien hotsekin: «Palanka, Salamanka, palanka manka» (BIDEAN NUEN PENTSATU, 1).

Beste honetan, ostera, uhinen hots ritmikoaren oihartzun izan daiteke o/a bokalen errepikapena: « Itsasoa orroaz, olatuak gau» (HARA BIDEAN, 5), sudurkarietz gerotxoago hotsa sendotuz: «haragi hezurren hormak ilunbez he-bain.» (Id., 7).

Txistukarien haizetxoak jesuitengan ezaguna den, edo izan den, hitzegiteko trebezia, dotorezia eta abilezia sei-nalatzten du:

« Izpirituzko hainbat exerzizio  
San Inaziok ditu laga zuretzat,  
jesuitak badio Alfontsoentzat,  
laster garade zuzaz horrela fio.»  
(KOMENI OMEN ZAIONA, 1-4)

Guzti hau pittin bat, edo gehiago, subjektibo izan daiteke eta kontestean ikusi behar da. Edonola ere, jarri ditugun kasu guztiotan poetaren asmo eta guraria ikusten, edo entzuten, delakoan gaude: horrelaxe egin nahi izan du, hizkuntzari poetikotasun hori eman nahi izan dio.

## 5. ESALDIEN EGIKERA

### 5.1. Hiperbatona

Ohizko hizkuntzaren hitz ordena arrunta aldatu edo alderantziz ematea da hiperbatona. Egia esan, ez da hain errez izango zein den ordena arrunta edo naturala erabakitzea, eta zein ez, kontutan izanik, gainera, euskalkiz euskalki ere badirela desberdintasunak, eta han arrunta ez dena, hemen bai izatea. Gure ustez, baina, Irigoienen sonetoetan guztiz argi agertzen da, zenbaitetan, errekurso poetiko honetaz baliatzeko asmoa. Esan ohi da, inoiz, hizkuntza poetikoaren literaturtasuna, hizkuntza arruntari egiten zaion bortxakeriatik sortzen dela<sup>25</sup>. Hau onar daitekeen heinean onar daiteke, baita ere, hiperbatonaren bidez poetak joera deigarriak erakutsi nahi dizkiola irakurleari, honen perzeptzioa geldieraziz.

Batzutan, ezezkako esaldien egikeran agertzen da hiperbatona, edo dena delakoa:

« Makurtuko ez gara» (DESEGIN EZIN, 8)  
« egingo ez luke zinik» (HAN, 7)  
« Egiteko hegaka ez luke lanik» (ALFONTSO ERE BAI, 8)  
« Ezin baztertu gara» (OSINA, 12)

Ohizko hizkuntzan, bizkaitar batek behintzat, « ez gara makurtuko», e.a., esan eta entzungo lituzke.

<sup>25</sup> Jakobson, eta Errusiar Formalismoak sarri hitz egin izan du honetaz.

Bestetan, futurozko jokamoldeetan genuke hizkuntzaren «bortxaketa» hiperbatontsu hori:

«zerua da kenduko» (GERORA SO, 12)  
«laster gara sartuko» (ERNETZEN, 12)  
«Paper zuriak dira gogo eginen» (ERNETZEN, 1)  
«haritz gara hasiko» (ERNETZEN, 8)

Zenbaitetan, aditz laguntzailea lexema lagunduaren aurretik edo ezkerretara jarri ohi du:

«Umea dute Borde» (INOREN LANA, 2)  
«gogoz dute jardungo» (ETA ARI DA, 10)  
«gure begiek dute buruz ikusten» (GERORA, 5)  
«euskaldunen arnasa horren dago zai» (ERNETZEN, 11)  
« garretan da berbiztu» (ATZERAKA, 13)  
« zaurturik ditu bota» (ATZERAKA, 6)  
« barrura da iragan» (TXIMISTA, 4)  
« Osorik du zapaldu» (TXIMISTA, 9)  
«San Inaziok ditu lapa» (KOMENI OMEN ZAIONA, 2)



Kasik gura aina luza daiteke hiperbatonaren mostraketa hau.

Jokaera honen hizkuntzaren --zelanbait esateko- bortxaketa hau, era simetriko antzeko batez banandu eta kokatu da ERNETZEN sonetoan: lehen kuartetoaren lehen versoan, «Paper zuriak dira gogo eginen»; bigarren kuartetoaren azken versoan, «haritz gara hasiko»; lehen terzetoaren azken versoan, «euskaldunen arnasa horren dago zai», eta azken terzetoaren lehen versoan, «Laster gara sartuko».

Hizkuntzaren aldetik, badirudi aditz laguntzailearen aurreko hitza edo lexema dela indar fokala hartzen duena. Bestetik, -gure ustez-, poemaren tonu baikorra (ERNETZEN titulotik hasita), sintaxiaren tonu oihukari batzuek -hiperbaton hauer- gaztigaturik eta ohar eginik legez gelditzen ote den esan daiteke.

## 5.2. Anplifikapena

Soneto hauetan barrena, badago esate modu bat, anplifikapena deitu ohi dena edo, dena. Kontzepto bat, edo sintagma bat, beste era batez azaldua, edo konkretatua, edo sinonimiaz ñabarduraren bat gehituz argitzen da.

Begira zenbait adibide:

- « (...) izate modu/desberdina gizonek, zahar ta berrik»  
(HARRIAK JO, 5)
- «Posible dugu dena, utopiren bat» (TXUNTXUN, 9)
- «Ta mediku zuriak, natura zale» (HANDIK, 9)
- « Ezin gu armaz haustu, tronpeta sonez» (ZAHARRA BERRI, 5)
- «Hierofantetzakoek, uzker mistiko» (ETA ARI DA, 9)
- «Geroaren mugida, pindar izpilu» (GERORA SO, 6)
- « Eguzkia jaungoiko, pizkari gazte» (GORAKOAN, 5)
- «Tragedien garrasi, damuzko laino» (EKINEAN, 3)

Verso guztietan aurkitzen dugu egitura semantiko eta ritmiko bera: anplifikapenek bigarren hemistikio pentasilaboa beteten dute, mugagabe dira eta aurreko heptasilaboaren aposizio gisa edo agertzen zaizkigu, hau « azalduz » ...

Aurrekoon antzekoak badira ere, sinonimia mailakotzat jo genitzake, zehazkiago, beste hauek:

- «Irrintzi bat entzun da, oihuka dabil» (IKUSMIRA, 12)
- «hondar dena uholdez, uraren oldez» (HARRIAK JO, 10)<sup>26</sup>
- «Sorterri emea, ama gurea» (BAT EGINIK, 1)
- «gora bidean maldan, aldatsik aldats» (ATZERAKA, L)
- «abegi ona luke, arrera bikain» (BAT, 14)

Esan bezala, ñabarduraren bat dakarten sinonimiak dira.

Baditu beste zenbait anplifikatze, baina oraingoetan luzeagoak, elipsi eta asindeton bidez loturiko enumeratzeak edo direnak. Hiru adibide baino ez ditugu ekarriko, gehiegi ez luzatzearren.

Bilbo «azaltzen» duen enumeraketa antzekoa da bata:

- «Bilboraino naiz heldu, han tunel beltza,  
gosea ta beldurra, ogirik eza,  
abioien runrruna, adar gogorra.  
(UPARANDIK BILBORA, 6-8)

LAMINERREKAn lamiaz (eta sonetoaz?) ari delarik, enumeraketa hirukoitzarekin jazten du hura:

- «Errekastoan duna ilea lore  
orrazizko liluraz, neskatxi arrain,  
zoragarri aurpegiz, gorri kolore.»  
(9-11)

Enumeratzea oparagoa da, oraindik, sorterriaz BAT EGINIKen diharduenean:

«Bihotz gogotan haugu neska gutarra,  
ekaitzaren argia, trumoién ama,  
jaiorikan urruxa, ederra dama,  
herrian dun zabaltzen arnas indarra.»  
(5-8)

26 Ez dira ugariak « uholdez»/«oldez»... bezalako paonomasiak...

### 5.3. Parekatzeak

Konbentzio metrikoaren ezaugarrietarik bat, sintaxi «berezia» izatean datza, halako moldez non versoak sintaxi «berria» sortzen duen. Soneto hauetan nabarién aurkitzen ditugunak, parekatzeak dira, edo hitz ezagunago eta teknikoago batez esanda, paralelismoak.

#### 5.3.1. Binakako sinonimiak

Kasik soneto guztietan entzun daitezke pareka doazen sinonimiak, «eta» juntagailuarekin elkar lotuak:

«hestu eta mehar» (ETA NOLA DEN, 3)  
«bultza ta saka» (PILO MONTTOIAK, 5)  
«txilio ta min» (ATZERAKA, 5)  
«suster ta magal» (BADATE, 12)

Egitura simetrikoko hauen kokalekua une ritmikoko bera da: bigarren hemistikoa betetzen dute. (Badira, noski, bestelakoak ere.)

#### 5.3.2. Binakako antonimiak

Aurrekoen antzerako izaera agertzen dute, baina askoz ere urriago agertzen dira:

«zahar ta berrik» (HARRIAK JO, 5)  
«gizon da abre» (GORAKOAN, 7)  
«negar ta barre» (GORAKOAN, 9)  
«lehor eta bustia» (HARA BIDEAN, 12)

#### 5.3.3. Binakakoa pareka

Poema berean, verso desberdinetan, agertzen diren sinonimia zein antonimiak, pareka emanak, paralelismo bertikalak sortuz<sup>27</sup>. Bat, goratxoago ikusi dugu, GORAKOANen. Errekurtso hau modu ugari batez agertzen zaigu IKUSMI-RAN:

«zirimir ta kala», 3. versoan.  
«kamelia ta lili», 4.ean.  
«eder ta bikain», 8.ean.  
«su ta ke», 11.ean.

<sup>27</sup> Paralelismo modu guzti hauetaz Dámaso Alonsok hitz egiten du, beronen *Poesía española*-n, Madrid, 1971, bereziki 328-335 orrialdeetan, Góngoraren Polifemo eta Galateaz ari delarik.

#### 5.3.4. Egitura simetriko horizontalak

Badira zenbait esakera, ezkerretik eskumara entzunda, edo horizontalean, egitura simetrikoa agertzen dutenak. Hainbat dira Alfonsoren kreazio lanean, eta eurotatik lau adibide emango ditugu, guztiok elkarren antzekotasun handi-koak:

- «bihurgune batean leize batean» (ZUHAITZA, 4)
- «Upopeko etxean haran berdean» (UPARANDIK BILBORA, 4)
- «ekaitzaren argia, trumoiaren ama» (BAT EGINIK, 6)
- «zapaltzaileen bonba handien bera» (ETA NOLA DEN, 13)

Guztiongan aurkitzen dugu zera, lehen hemistikioko multzoaren egitura sintaktikoa errepikatzen dela bigarren hemistikioan.

BAT EGINIKekoak, «noren» gehi sustantiboa errepikatzen ditu, alde batetik. (Baina, semantikoki, oximoron antzeko zerbait litzateke, ez baitoakio, besterik gabe, ekaitzari ezeren argitasunik izatea, ezta ere amatasunari trumoiak sortzea.)

Laugarren adibidekoa, ETA NOLA DENekoa, kalanbour delakoaren jokoa ere egitera ote datorren esango genuke, bi eratara irakur baitaiteke. Begira terzetoa osorik:

- «Telebista ekintza erdalzalean,  
zapaltzaileen bonba andien bera,  
akerraren adarrak sutazalean.»

Irakurketa bat: «Telebista, ekintza erdalzaleetan, zapaltzaileen bonba da eta zapaltzaile handiena bera da.» Beste irakurketa, grafikoki versoan bertan agertzen dena da, hots, « handien» hau, «bonba»ren adjetiboa, zuzen-zuzenean.

#### 5.3.5. Goitik beherako parekatzeak

Zenbaitetan parekatze horiek soneto berberean barrena aurkitzen ditugu, baina modu bertikal batez. TXUNTXUNen, kasurako, aparteko berezitasuna daukate goitik beherako parekatze fonikoek<sup>28</sup>.

- «(...) alderdiren bat», 6. versoan.
- «(...) erdiren bat» (7.ean)
- «(...) utopiren bat» (9.ean)
- «(...) garaldiren bat» (1.lean)
- «(...) mila kolore» (12.ean)
- «(...) dadila lore» (14.ean)

<sup>28</sup> Gorago ere zerbait aipatua, rimari buruzkoan.

Beste soneto baten, (BAT HIRUTAN...), parekatze bertikala semantiko-sintaktikoa da:

- «Nafarroa hegoan» (5.ean).
- «Frantziako legean» (7.ean).
- «Atlantiko aldean» (8.ean).

Ikusten denez, izen propioa gehi «non» sintagma errepikatzen dira.

HIRE BAITARIKen anaforikoa da, «Hireganik», « Hiregatik» eta « Hireganako», estrofaz estrofa errepikatuz.

Erepikatze modu hauek, azkenez, era bi aldiz laukoitzean ematen dira, Al!n:

«gordelekuen bila, beldurra erauzten» (8.ean)  
«ezkutuaren bila, atzena ikusten (10.ean)  
«Gordelekuen bila, biriak puzten» (12.ean)  
«hilerriaren pare gorpua uzten» (14.ean)

Lehen hemistikioan, «zeren» gehi izena eta bigarrenean «zer» gehi-ten.

## 6. POLIFONIA TESTUALA

Julia Kristevak zioen «testo oro aipamen mosaiko legez eraikia» dela, «testo oro beste testoren baten xurgaketa eta eraldaketa» dela. Edo beste era batez esanda, «testo poetikoa, beste testo baten baieztatze edo ukatze mugimendu konplexoek sortua» dela<sup>29</sup>.

Alfontsoaren kreazio lanean badu honek berebiziko indarrak, autore kultoengan gertatu ohi den eran<sup>30</sup>.

### 6.1. Autozitatik

Badakigu nor den poemaren egilea, baina ez narratzailea edo «ego poetikoa». Honez gain, Irigoienen poema askotan, «plural maiestatikoa» agertzen zaigu narratzaile moduan: «Geure jokoa dugu irauteena» (OSINA, 9) dioenean, adibidez. Soneto hauetan, bestalde autozitatik ugariak dira, bertso paperetako eta bat bateko bertsolaritzan bertan egilearen edo bertsolariaren izena entzun ohi den eran. Poemategian barrena, batez ere erdialdetik aurrerantz, «Alfontso» eta «Irigoien» agertzen zaizkigu: «ALFONTSO ERE BAI», (tituloan bertan), «Irigoien dardaraz» (ATZERAKA, 12), «Irigoien butza» (TXIMISTA, 1), «-Irigoien or doa» (GAINEAN, 4), inork esana, «Alfontsozentzat» (KOMENI OMEN ZAIONA, 3) eta «Irigoieni» (BAT, 2).

Esandakoez gain, agiri-agirian aitatzen du narratzaile edo «ego» poetikoak Irigoien edo Alfontso hori «eman zuen bizia Arestik ere» (BETI, 2) honetako «ere» honen bidez, hurren orrialdeko poemaren tituloa «ALFONTSO ERE BAI» da, izan ere, eta.

Autozita hauek ez dute guztiok asmo espresibo bat bera beti izango. Hasteko, «Alfontso» horrek diminutiboaren ñabardura izan behar du, egilea «Alfontso» baita.

Deigarriena BATekoa izan daiteke, rima agertzen denez gero, besteak beste.

<sup>29</sup> Ikus in *Sémiotiqué*. Paris 1969, 146 eta 257 orrialdeetan. Bada gai honetaz lan interesgarri bat, Graciela Reyes andereak egin: *Polifonía textual. La citación en el relato literario*. Madrid, 1985.

<sup>31</sup> Jon Juaristi poetarengan ere berdintsu gertatzen da, honen *Diario de un poeta recién casado*-n, adibide bat jartearren, tituloan bertan, J.R. Jiménez-en *Diario de un poeta recién casado* «eraldatzen» da.

### 6.2. Herri kantak

Ugari ditugu, baita ere, herri kanten isileko aipuak, eta isilekoak diogu, ez baitute aipuaren inolako adierazpenik edo seinale grafikorik: libertateaz ari dela, «txoriaren antzera hegan ekinik» honek (DESEGIN EZIN, 7), B. Lertxundik eta M. Laboak txori hegoak moztua kantatua oroiteratzen digu, ilustrazio-optimismo antzeko eraemanik; «zerutikan jautsirik» eta «harri zerutik fina»k (HARRIAK JO, 10, TTANTTAKA, 2) «ogi zerutik» eliz-kanta, bi poemotan ikuspuntu antropozentrikoa hartuta, orain. «Labe handiak dira beherantz sutan» (EURIA, 9), Bilbo aldean hain ezaguna den «los altos hornos de Baracaldo / que alumbran todo Bilbao» kantaren umore errez samar eta baikorraren erreplika da. «Bidean nuen pent-satu»-n, titulotik hasita, Salamankara estudiantzera doanaren kanta errepikatzen da, baina herri mitologiarekin nahastuz, oraingoan, «jentilak» palanka botatzen duelarik. LAMINERREKA sonetoan, autoreak soneto era berriak... sortuko dituela eta, «euskaldunen legera» dioenean, Iparragirreraren aurka Xenpelarrekin esaniko «baserritar legera» gogoratzen digu -ikus «eraldaketa»: baserritarra, euskaldun bihurtu baita-, alde batetik. Bestetik, «italico» horrek letra larriz idatzia-, Santillanaren *Sonetos fechos al italico modo* laburtuz ematen du.

Azkenez, «Irrintzi bat entzun da» heptasilaboak, Arestiren poema baten zatia errepikatzen du (Oskorriren kantari esker hain ezaguna egin dena)<sup>31</sup>.

### 6.3. Errefrauak

Aurreko herri kanten oihartzun horren antzera, entzun ahal ditugu errefrauak ere, edo erefrauen zatiak, edota errefrau antzeko herritar esakerak: «balizko olak» (OSINA, 1), «balizko oleak burdiarik ez»<sup>32</sup> hari erreferentzia egiten dio. Soneto berean, «Jokoa ere ez da errenta», «Jokoa ez da errenta» entzunaren antzaldaketa ttikia da.

Errefrauak ez badira ere, bai esaldi oso entzunak «bizirikan egonik konta daiteke» eta «total para qué» (UPA-RANDIK BILBORA, 10 eta 14), herritarren etsitasuna, edo etsikeria agian, adierazten dutenak. (Aipu bi hauek, «inork», ego poetikoa ez den beste batek, eginak dira.)

ETA NOLA DENeko «akerraren adarrak» Azkuek ere jasoten duen<sup>33</sup> hitz kate korapilotsuarekin, erdalzalekeria sortzen duen telebistaren aurkako aliterazio bihurtu da. «Diruaren gosea ezin ase» pareado antzekoak eta herritar sententzia moralizanteak ematen dio hasera HOLA DOA sonetoari, poesia sozial edo zibiko antzeko batez burutzeko.

#### 6.4. Erreferentzi edo aipu kulturalak

Gorago ere esan bezala, poema hauetako giro orokorra «kultoa» ere badela esan daiteke, herritar giro agiri baten ondoan. HARRIAK JO eta TTANTTAKA sonetoetako «harri» hitza entzutean, gaitz zaigu Arestiren obra poetikoa burura ekarri gabe iragaiterik, tituloetan baitaukate «harri» hitza bilbotarraren poema liburuek. BAT HIRUTAN BANATZEN BADA sonetoaren tituloak berak, Antonio Iralaren *Bat bitan banatzen da*<sup>34</sup>, argitaratu orduan hain zaratatsu bihurtu zen liburuaren tituloari eta tesiari oposatzen zaion *ad hominem* antzeko zerbait izan nahi du: orduan salaketa hori egin zuten partidukoek, edo hurbilekoek, orain eurek onartu dute «banaketa» politiko-administratiboa. HANDIK sonetoko «ereile berri» rekin, Ebanjelioetako «Ereilearen» parabola datorrigu gogotara, Bonaparte printzipeak agindurik zenbait euskalkitara itzulia izan zena, baina orain poetaren lan «berri» litzatekeena<sup>35</sup>.

Kultura aipu ezagun samarra litzateke «Apoiatzeko puntu» (BIDEAN NUEN PENTSATU, 9), fisikoen palanka eta apoio puntu ospetsuak, orain metaforizaturik. IBAIAko «mila urtez oraindik heure bidean» esaldiak, Erdi Arako eresietan dauka abiapuntua<sup>36</sup>.

Eta, azkenez, BAT sonetoaren gordintasunak, Detxeparerengana eramaten gaitu, «buluzgorririk» entzutean, eta jarraiko verso hauek gogoratzen:

« munduyan ezta gauçaric hayn eder ez placentic  
Nola emaztia guiçonaren petic buluzcorririk  
Besso viac çabalduric dago errendaturic  
Guiçonorec daguiela harçaz nahi duyenic.»<sup>37</sup>

#### 7. KOSMOGONIA

Soneto guzti hauetan, geure uste apalez, agirien eta indartsuen agertzen den irudia itoginarena da. Honelaxe hasten da TTANTTAKA poema:

«Itoginak betiko erdi dezake  
harri zerutik jina, erauzirika,  
aldi luzeak mina ahantzirika,  
malko zena zehazki garbi dezake.»  
(1-4)<sup>38</sup>

<sup>31</sup> Arestiren eragina, Oskorri, Mikel Laboa... etabarren kanta bidez hedatuago eta popularrago bihurtu zela esango genuke: «zerutikan jautsirik» eta «harri zerutik jina» sintagma hauek Arestiren hitzekin Oskonikoek eginikako kanta baten oihartzuna daukate: «Ogi lurrari/ukatua./zu zara gure/bekatua.» zioen kantak, eliz abestiaren musika berarekin, puntutxo bat parodiatuz... (Kanta hau, zentsuraren kausaz diskoan 1981.ean agertu bazen ere, oso ezagun bihurtu zuten lehenagotik Oskorrikoek.) «Irrintzi bat entzun dugu/ezpataren aurrean/oskorria zabaltzen da/euskaldunen lurrean.» zioen Arestiren letrak, Oskorrikoek 1979.ean kanta bidez zeharo popular bihurtu zutena. (Argitasun hauek, ikus in *Oskorri: ehun eta hamaikatxo kantu*. Bilbao, 1990. (Josepe Zuazoren azal maketazio eta aurkezpenarekin.)

<sup>32</sup> Ikus in *Refranes y Sentencias de 1596*, 15.a: «Balizco oleac burdiaric ez. La erreria de fi fueffe no haze fierro.» (Julio de Urquijoren edizioa, Auñamendi, Donostia, 1964, 34.ean.

<sup>33</sup> AZCUE, R.M. de: *Euskalériaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco*. Madrid, 1969, 3. tomoa: «IV. Trabalenguas (...) 2. Akerak adarák okerak ditu (...)» (363-364.etan).

<sup>34</sup> IRALA IRALA, Antonio de: *Bat bitan banatzen da. Mao-Tse-Tung'en Pentsa Muiña*. Donostia, 1975. Geroago, 1976ean, erdaraz ere eman zuen argitara, *Uno se divide en dos. El arma revolucionaria de Mao-Tse-Tung*. San Sebastián, 1976. Irala *Bultzagileak* taldearen burukidea, edo bultzatzailea, zen une honetan eta *Goiz Argi* aldizkariaren eragile.

<sup>35</sup> Manterolaren *Cancionero* Bascon, Tomo IV, (1878) delakoan ikus daiteke: «I. Parábola del Sembrador, traducida á los ocho dialectos del vascuence y á cuatro de sus subdialectos, bajo los auspicios del Principe Luis Luciano Bonaparte».

<sup>36</sup> «Mila urte ygarota/Vra vere videan./Gipuzkoarrocc sartu dira/Gazteluco echean,/Nafarroquin batu dira/Beotibarne pelean.» Ikus in MICHELENA, Luis: *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid, 1964, 66.ean.

<sup>37</sup> Ikus in «3 Emazten fauore», Patxi altunaren edizioa, Bilbao, 1980, 126-128 orrialdeetan.

<sup>38</sup> Bada latinez errefrau bat, «Gutta cavat lapidem, non semel sed semper cadendo» diodena. Honen antzeko bat *Retranes y Sentencias* delakoan agertzen da: «Betico ytoguinac arria çulatu / ta aldi luçeac guztia aztu.» (J. de Urquijoren edizioa, San Sebastián, 1964, I.go tomoa, 37. orrialdean.) Gorago aipatu dugun polifonia testualaren barnean gauden, «aldi luzeak» sintagmak, besteak beste, argi uzten duen moduan. (Urquijok dioskun legez, ez dirudi errefrau honek euskaraz « herritartasunik» duenik.)

Poetaren ustetan, ahalegin burutsu eta artatsuak sor dezake etorkizun hoberik. GERORASOn, binomio simetrikoko batek laburbiltzen du uste eta desio hau: «bihotza ta zentzua». (Optimismorik zabalena ERNETZENen azaltzen da.) Edonola ere, «euskal gogo gureak bide nekeza» duela esanez gaztigatzen gaitu.

Kosmogonia bitalista eta antropozentriko honetan –Irigoien izan daiteke, gure artean, ilustratuen zerrendako jorera razional optimistako azken gizona--, libertatea dateke doerik preziatuena. (Honi «hika» apelazioa egikeran, behin mutil edo maskulotzat hartzen du-«gaitzaala», «dezaala» bezalakoak diotsoz-, eta beste behin neska edo feminatizat --«ditun», «badun» bezalakoak diotsoz-<sup>39</sup>.)

Libertate gabe, dio, bizitza «hilkorra da, nekez doana/dolorezko egoitza, mautu atea.» (HAIZEARI BEGIRA, 2-4). Terzeto bat libertate honi kanta liturgikoa da:

«Libertatezko deiak lurreanjo dau  
herri oro daitezen jaube eta jaun,  
tontorreko arnasak agitzen du hau.»  
(GORAKOAN, 12-14)

Dauzkan ezaugarri edo atributoak, gizakiak duen «hitzez ahoa» (BADATE, 8), gizonaren «mintzoa» (HARA BID-EAN, 13)... dira. Hots, Oteroko Bladiren *Pido la paz y la palabra* hura.

Hirugarren gai nagusi bat sorterraren da<sup>40</sup>. «O sorteri geurea, zuhaitz odoldu!» (ZUHAITZA, 9) hots egiten diona, eta neskatzat hartzen duena: «sorteri emea, ama geurea», «neska gutarra», «trumoiaren ama», «ederra dama», e.a. (BAT EGINIK)<sup>41</sup>.

Gai hau, geure uste apalez, era tradizional eta patriotiko batez darabil. Arrese Beitia eta abarrengan bezala, sorterrari «atzerria» (OSINA, 14) oposatzen zaio, «etsaiak» (DESEGIN EZIN, 2) dauzka, eta hau, euskal literatura patriotikoan ohi bezala, «hartz» metafora pean markatzen da (TXUNTXUN, 1).

Alfontsoaren Euskal Herrian, edonola ere, ez dago hiria ≠ baserria oposizioerik, geure iritzian: Ibairen metafora pean, iturburutik itsasoraino, handituz, doan hori, badirudi Ibaizabal dela, Oiz... mendian jaio, herrisketan zehar jaitsi eta hiri gero eta handiagoak zeharkatuz itxasorantz datorrena. Soneto honen bukaeran, -diogu-, (Euskal Herrian) baserria ≠ hiria gainditu egiten du:

ezaguna enetzat orainarteino  
amodio beharrez bizi nintzela.  
Etsai ezin haut izan haurride baino.»  
(IBAIA, 12-14)<sup>42</sup>

ETAri buruz, azkenez, «dardaraz» ari dela esango genuke. Tituloak eurak ere begiragarriak dira: ETA NOLA DEN, ETA ARI DA... anbiguitate pekoak ditugu, «eta» juntagailu polisindetonikoa ere izan baitaiteke. Seguruenetik, poetarentzat ETAREN existentzia «garenaren seinale ez da hoberik» (EKINEAN, 12) dugu, nahiz eta tragedia bortitzean izan. Errealitate hori, amaitzeko, aliterazio bidez literatizatua gelditzen da:

«Irigoien dardaraz lagun artera  
garretan da berbiztu larre berdean:»  
(ATZERAKA, 12-13),

dardarkaien errepikapenak, « terra tremuit» hark bezala, ikara sortzen baitu.

<sup>39</sup> Hau guztiau jakinaren gainean, noski. (Ikus in HAIZEARI BEGIRA, 13, 14, eta HIRE BAITARIK, 2 eta 11.)

<sup>40</sup> Horixe da Alfonsoren tesi autobiografikoa, hain zuzen ere: *Sorterriaren alde* izenburua darama, 1976.ean argitaratu eman zuen «ene artearen iturriak eta bizitzako zenbait ditzira» azpтитuloa daukan lanak.

<sup>41</sup> Poema honetan, «gora gu ta gutarrak» herri-esaldiaren izenorde adjetiboa «neskari» dagokio.

## 8. JUDIZIO GENERALA

Soneto hauek irakurten eta ber-irakurten ari nintzela, Irigoienek ikasle izaniko lankide batek galde egin zidan:

-Nolakoak dira?  
-Onak.

Ez dakarte hitz jariorik, pentsamendu neurtuak dira. Ez darie sentikariakeriarik, arrazoituak dituzu. Hainbat herri-tar jokamolde eta ibilbidez baliaturik, poesia kultura landu da. Ez dira, azkenez, plazan kantuz ematekoak, ez galapadan irakurri eta ixteko: ez dira horretarako, behiniphehin, sortuak, eta astiro irakurri, polito polito begiratu eta buru ausnarketaz goatzera helduko zara.

*Angel Zelaieta*

<sup>42</sup> Arrese Beitia..., eta oraintsuago Txikia (Eustakio Mendizabal), etabarren poemetan ikus daiteke animalia harropalarien metaforizazio hori. Arrese-Beitiarentzat «goiko» Euskal herria eta «beheko» hori erabat desberdinak dira: «Zuek goyetan beti euskaldun/Ez alan beian erriak». Gauza bera edo antzekoa Eustakioarentzat ere: «Aralar mendi txit gandarrean/Ama Euskera nekusan» baina « Zure kaletan erdera dabil». Era berean, Euskal Herriak «etsaiak» dauzka, eta «artz» dira: «Alperrik eben etsai arroak/Pentsetan zirala artzak», kantatu zuen Arresek. Eustakioarentzat ere, atzerria Euskal Herriari oposatzen zaio, eta «mirotz» «otso»... da. Ikus in ARRESE-BEITIA Felipe: *Olerkiak*. Euskaltzaindia-Onaindiaren edizioa, 1956, 18, 36, 39 eta 41. orrialdeetan. *Hitz etena*. Eustakio Mendizabal «Txikia»ren olerkiak. Jon Aranoren apailatze lana. Lasarte-Oria, 1992, 37 eta 39. orrialdeetan.

## BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, Dámaso: *Poesía Española. Ensayo de Métodos y Límites Estilísticos*. Madrid, 1971.
- ALTZIBAR, Xabier: *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*. Bilbao, 1992.
- ANONIMO: *Refranes y Sentencias de 1596*. (J. de Urquijoren edizioa), San Sebastián, 1964.
- ARANA GOIRI, Sabino: «Lecciones de Euzkera Bizkaino» in *Obras Completas*. Buenos Aires.
- ARRESE-BEITIA, Felipe: *Olerkiak*. (Euskaltzaindia-Santi Onaindiaren edizioa). Bilbao, 1956.
- AZKUE, R. M.a de: *Eukaleriaren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco*. (III tomoa). Madrid, 1969.
- CASENAVE-HARIGILEK, J.: *Santa Kruz (pastorala)*. 1992.
- DETXEPARE: *Linguae Vasconum Primitiae*. P. Altunaren edizioa, Bilbao, 1980.
- DOMÍNGUEZ CAPARRÓS, José: *Diccionario de Métrica Española*. Madrid, 1985.
- IRALA, Antonio: *Bat bitan banatzen da*. Donostia, 1975.
- IRIGOIEN, Alfonso: *Sorterriaren Alde*. Bilbao, 1976.
- IRIGOIEN, Alfonso: *Orbel eta Orri*. Bilbao, 2. ed., 1985.
- KRISTEVA, Julia: *Sémiotiqué*. Paris, 1969.
- LAUAXETA: « LUDI AMESKORRA ». J. Kortazarren edizioa, Bilbao, 1985.
- LIZARDI: *Itz-lauz*. Vitoria, 1972.
- MANTEROLA, José: *Cancionero Basco*. Honen IV. Tomoan, 1878.ean, argitara eman zen «I Parábola del Sembrador» delakoa. Hementxe, era berean, S. Barojaren «¡ARRATS MUGARRIA!» (SÉRIE III (1880), 318 eta segidakoetan).
- MENDIBIL, Gontzal: *Iparagirre hegalaria*. Bilbao, 1992.
- MENDIZÁBAL, Eustakio, «TXIKIA»: *Hitz etena*. Lasarte-Oria, (Jon Aranok apailatutako edizioa), 1992.
- MICHELENA, Luis: *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid, 1964.
- NAVARRO TOMÁS, T.: *Métrica Española*. Barcelona, 1991.
- REYES, Graciela: *Polifonía Textual. La citación, en el relato literario*. Madrid, 1985.
- ZABALA, Antonio: *1960.eko Bertsolari Txapelketa*. Zarautz, 1961.

(Testoan barrena agertzen diren Berceo, Fr. Luis de León, J. Manrique, Fernando Herrera, Lope de Vega, Góngora, San Juan de la Cruz... eta beste erdaldunen baten versoak *Los 25.000 mejores Versos de la Lengua Castellana*, Círculo de Lectores, Barcelona, 1973, delakotik jasoak izan dira.)



**ALFONTSO IRIGOIEN, gerrosteko txapelketen eragilea**  
**«IA DEN-DENA NEUK EGITEN NUEN, BAINA EZ**  
**ZEN HAIN ZAILA ERE»**

1929. urteko Azaroaren 14an Bilbon jaio zen Alfontso Irigoien, umetako fantasiak ordenatzen hasi zenerako, gerarak harrapatu zuen. Eskola hasi berria utzi eta Areatzako (Villaroko) Uparan baserrira Braman zuten, amamarenera, han gosea arindu eta lasaitasun pixkat izatekotan. Baina Gorbeako frentean, baserri haren gain-gainean zegoenak, urtebete-edo egin ondoren, berriz Bilbora ekar erazi zuen.

--Gerra aurretik Olabeagako eskolan hasia nintzen, baina gero, Francoren tropak aurrera eta ez eskola ez ezer. Adarra jotzen zutenean, tunelpera arin, berriz adarrak jo arte, noiz irtengo. Bilbo harrapatu zutenean, ogi zuria eta jana ere banatzen zuten, propaganda egiteko, baina gero, eskolan irakasten ziguten bezala, «primer año triunfal», «segundo año triunfal» eta zerrenda hori hasi zenean, ogi zuriak eta beltzak ere bapoz ezkutatu ziren.

Alfontso umetako pasadizo eta xehetasunak asko eta garbi kontatzen ditu. Bere sofa apatzean, bere alkondara zuri eta tirante urdin-gorriek jaxten duten gizon potolo honen barruan lehengo ume hark bere-berean dirau.

-Eskolan nola bizi zenuten gerroste hurbil hura?

-Instrukzio eta guzti, soldaduzkan bezala. Bagenuen Don Emilio izeneko maisu bat, desfileak, «media vueltas» eta dena eragiten ziguna. Behin Bilbon ume guztien desfilea antolatu zuten. Falangista jantzita joan behar zen. Baina gure eskolakoak ez ginen joan, trajerik ez geneukalako.

-Falangista trajerik eduki ez? Hori delitu handia izango zen, ba.

-Ez dakit. Ez zen guretzat helduko, pobreagoak ginelako edo.

Batzuk ogi zuria ere jaten zuten, ez dakit non lortuta eta garesti baina. Laster sartu zen gosete ikaragarria, arrazionamentu, estraperlo eta abar, eta bigarrenez amaren etxera, Areatzara eraman ninduten, eta hantxe poliki.

-Taloa eta esnea janez.

--Hori! Gosea kentzeko. Beste urtebete-edo egin nuen han. Larunbatetan amarenera etortzen nintzen, Bilbora, eta gero berriz amamarenera, Arratiako tranbian tarran-tarran. Halaxe ezagutu nuen baserriko bizimodua. Gero inoiz, udaren batean, aitaren baserrian ere izaten nintzen. Gure aita Lopertza baserrikoa zen, Debako Elorriaga bailarakoa.

-Eta nolako euskara egiten zenuen?

-Nik beti amaren euskara egiten nuen. Lopertzan ere zerbait ikasi nuen, baina joera amaren hizkerara neukan. Etxean harena ikasi nuen. Nire umezaroa nahiko gorri joan zen, hamalau urtekin lanean hasi arte.

-Hamalau urtekin lanean?

-Bai. Hamalau urte bete aurretik. Aztegieta Tintorerian hasi nintzen. Goizeko bederatzietan hasi eta zortzi ordu, eguerdian bazkal orduak erdibiturik. Larunbat arratsaldeak eta dena. Astean hirutan, hura amaitutakoan, «Artes y Oficios» era joaten nintzen, dibujoa ikastera. Goizean zortzietatik bederatzietara, akademia batera, kontaduria eta kultur kontuak ikastera. Beraz, egun guztia lanean egiten nuen.

-Derrigor samar ala pozik ala nola zenbiltzan guzti horretan?

-Ez, ee... -Alfontso zalantzan gelditzen da. Ahalegin bat egin ondoren, jarraitzen du: -Ez naiz gogoratzen pozik egiten nuen ala ez. Egiten nuen. «Artes y Oficios» en hiru urte egin ondoren, pintura ikasten ere hasi nintzen. Eta igandeetan pintatzera joaten nintzen. Beti lanean, beraz.

-Baina pintatzera joate hori gogoko zenuelako egingo zenuen, ezta?

-Bai, ahal nuen orduan. Koadru asko egin nituen orduan. Hemen dauzkazu hainbat.

Alfontso Irigoienek bere pintura koadruak pozik erakutsiko dizkizu, behar diren xehetasun guztiak emanaz. Bistan da bere koadru baten aurrean ilusioa berritzen zaiola, edo lehen-mina agian, orain pintatzeari erdi utzita omen bait dago.

-Eta neskatan-da noiz egiten zenuen, ba?

-Nik beti lan egiten nuen. Gero, soldaduzkara joan aurretik lana aldatu nuen. Orduan beste akademia batera joaten nintzen, matematikak, trigonometria eta horrelakoak ikastera. Matematiketan oso ondo ibiltzen nintzen. Baina ikasketak horiek legezatu gabeak ziren. Jakite horrek ez zidan ezertarako paperik ematen.

«Destilerías Bilbainas» lantegian nenbilen. Gero han «Zubillaga»- rekin batu zen, eta hemen kontaduria eramaten hasi nintzen.

Ordu extrak eta dena. Han ez zen larunbat ingelesik.

-Ez ingelesik ez euskaldunik?

-Ezer ere ez. Aspertu nintzen eta behin uztea erabaki nuen. Aita apur bat haserretu zen, baina hanka egin nuen.

-Utzi eta zer?

-Ba, Euskaltzaindian ibili nintzen, euskaraz irakasten eta halako lan batzuk egiten.

-Euskaltzaindian orduan hasi al zinen?

-Bai. Soldaduzka eginda laster. Nik soldaduzka nahiko ondo pasatu nuen, Gasteizko Infanterian. Zerbait zekite-nak bilatzen zituzten eta ni transmisioetan jarri ninduten. Han Morse eta halakoak ikasi nituen. Gero bulegoan sartu nintzen, eta hilabete han eta hilabete Bilbon egiten nuen. Bilbora nentorrenean, berriz lanean, eta hala. Ni aurretik Euskaltzaindira liburuak erostera joaten nintzen. Orduan hura ez zen ezer, egoitza zahar erdi ilun bat besterik, baina kanporantz argi asko egiten zuena. Artean Krutwig ere ezagutua nuen, hau Euskaltzaindikoa bait zen. Azkueren liburu gehienak erosiak nituen.

-Azkue ezagutu al zenuen?

-Bai, baina ez nuen askorik tratatu. Ordurako memoria erdi galdurik zeukan, amnesia edo halako gaitzak jota. Gauza bat galdetu eta bost minutura gauza bera galdetzen zizun, eta biharamonean berriz huraxe. Nik ezagutu nuenean, Azkuerekin ez zegoen taxuzko solasik izaterik.

Alfontso Irigoienek orduko gorabeherak mahai gainean bezala dauzka. Nola Krutwigekin batera Leizarraga irakurtzen zuten. Nola orduan Erkiagak, Mikel Arruzak eta Aita Villasantek ere Lapurdiko euskara klasikoan idazten zuten, PH grafia eta guzti. Mugimendu hori Krutwigek sortu omen zuen.

-Pintore artean ere banenbilen, «Asociación Artística Vizcaína» zelakoan. Hantxe ezagutu nuen Ibarrola eta beste pintore asko.

Bazen Zarco deitzen zioten bat, teatroan arduratua. Beraz, mugimendua pinturazkoa ez ezik, zabalagoa zen.

Erakusketak-eta egiten ziren, eta han agertu zen Oteiza ere.

Bilbora bizi izatera etorri zen. Eta ni ere handik nenbilen.

-Badirudi beraz, aterik zabalik aurkitu ezker, nonahi sartzen zinela, ezta?

-Nonahi sartzen nintzen.

Alfontso orduko izen asko ematen ditu, eta batez ere Krutwigen kontuak asko eta luze kontatzen ditu. Nik esaten diot hau ez dela Krutwigi elkarrizketa, berari baizik, baina hala ere hizketan ihardun genuen bizpairu ordutan Krutwigen izena behin eta berriz azalduko zen. Alfontsoaren bizipenetan argi dago Krutwig izen bat baino zerbait gehiago dela.

-Beste mugimendu politikoago batean ere ibili zinela entzuna daukat nik. Halako talde isilpeko samarra bera.

-Bai, bai. Artean ezagunak nituen julen Madariaga, Benito Del Valle, Mano Agirre, Mikel Barandiaran, Maki Gainzarain, Gurutz Ansola eta abar. Batzar klandestinoak egiten genituen. Gero taldeak egiten ziren. Hainbat talde ziren eta ni gorengoan nengoen. Talde bakoitzekoek ez zekiten besteak nor ziren. Oso isilekoa eta politikoa zen guztia. Harrapatu banindute, gartzelara joan beharko nuen. Bitxia bada ere, ez naiz inoiz preso egon, baina ez arriskuan ibili ez naizelako.

-Eta zer lan edo zer egiten zenuten?

-Hainbat gauza, kultur arloan batez ere. Euskal Herriko Historia eta abar. Zenbait gai prestatu eta zabaldu egiten ziren. Baina oraindik ETA sortzeko zegoen. Ni, ETA sortu zenean, ez nenbilen mugimendu hartan. Euskal kulturari ekitea hobe nuela eta aldendu egin nintzen.

-Diferentzia ideologikoak ala zer zela bide?

-Diferentziak? Beharbada nire izakeragatik izan zitekeen.

Gauza batzuk ez nituen gogoko. Formaren aldeko zenbait gauza.

Nik ez nuen zenbait gauzatan sartu nahi. Ordurako Ajuriagerrarekin ere bazeuden diferentzia batzuk. Nik hori utzi eta Luzio Artetxek deitu zidan. Hau PNV-koa zen, PNVkoekin ibili nintzen halako batzarretan, Ajuriagerrarekin-eta. Han zebiltzan Beldarrain, Retolaza eta abar. Inoiz Ajuriagerrarekin Ondarroara ere joan ginen, bazkari bat egin eta hitz egitera.

Alfontso Irigoienek asko gestikulatzen du gauzak azaltzean. Betaurrekoak ere kendu eta ipini ariko zaizu tarteka, batzutan oso urrunera begiratuz. Baina badaki zuzen-zuzen begiratzen ere, ezagutzen ez duen batek lotsagabe samarra dela pentsatzeko moduan. Niri ematen didan inpresioa da konplexu gabe hitz egiten duela, kontraerari beti ere misterio kutsua ezarritz.

-Urte haietan Euskaltzaindian ere oso sarturik nenbilen. Banituen harremanak Mitxelena, Irigarai eta abarrekin. Mitxelena PNV-koa zen. Zaitegi ere Guatemalatik etorri zen. Han «Euzko Gogoa» ateratzen suen. Zenbait artikulu bidali nituen, izengoitiz noski. Arestik ere bai. Zaitegik Orixe ere Guatemalara eramana zuen. Esan bezala, Zaitegi hona etorri zen eta «Euzko Gogoa» hemen ateratzea pentsatu zuen. Guk euskal mugimendu hura sortua genuenez, hartaz baliatu nahi zuen.

-Zer mugimendu esan nahi duzu? Lehengo mugimendu isilpeko hura?

-Ez, ez. Euskal mugimenduaz ari naiz zuzenean. Berrogeita hamabosgarren edo hamaseigarren urtean, ez nago ziur, Azkueri omenaldi handi bat egin genion Bilbon. Baimena nola lortu? Orduan Nazario Oleaga genuen Euskaltzaindiko idazkari eta horri errespeto pixka bat bazioten, eta halaxe lortu zen omenaldia egitea. Ordukoa da Arantzazuko euskaltzaleen lehen biltzarra ere. Ni ibili nintzen deitzen-eta. Ordurako, euskarazko klaseak ematen ez ezik, Euskaltzaindiko idazkari antzera nenbilen. 56an *Euskera* aldizkaria atera zen.

-«Atera zen»? Nola? Nork atera zuen?

-Ba, egia esateko, neuk. Nik egin ez banu, inork ez zuen egingo. Euskaltzaindiaren aldizkari gisa atera zen, baina ideia eta ardura guztia nirea zen. Gogoan dut Vicente Uriguenek -euskaraz ez zekien askorik- nola esan zidan: «Yo tengo muchas amistades y te conseguiré suscritores». Eta hasi eta bostehun edo seirehun harpidedun egin genituen. Aldizkaria harpidedunen diruz ordaintzen zen. Euskaltzaindian ez zegoen ezer. Nik lau mila pezetako soldata neukan urtean.

-Urtean ala hilean?

-Urtean! Urtean! Azkuek gerra aurrean «Junta de Cultura» tik hartzen zituenak. Gerra aurrean agian asko izango zen, baina nire garaian ez, urtean izateko. la diru gabe egiten genuen hori. Arantzazukoa bakoitzak ordaindu zuen. Hainbat jende agertu zen. Arestik zerbait laguntzen zidan, baina ez zen horretan sartzen.

-Eta orduko Euskaltzaindia zer zen, ba, edo zer egiten zuen?

-Hilean behin batzartu. Horixe zen Euskaltzaindia.

-Eta eguneroko martxa?

-Hori neuk egiten nuen dena. Bizkaian neu nintzen eguneroko langile bakarra. Gipuzkoan ez zegoen ezer.

-Buka ezazu Zaitegiren kontua.

-Ah, bai. Zaitegik, mugimendu guzti hori ikusita, bere aldizkaria hemen ateratzeko lanean ziharduen. Azkenean ez zioten baimenik eman, eta Iparraldean ateratzen hasi zen. Azpi politikoa ere izan zen hor, baina...

-Baina zer?

-Ba, ez du merezi eragiterik. Bakoitzak berearekin nahikoa genuen, eta nonbait ez zuen berak uste bezalako babesik inon aurkitu eta etsi samar joan zen. Baina *Euzko Gogoia* aldizkari inportantea izan zen orduan.

Euskaltzaindiko langile bakarra genuen Alfontso Irigoien Etxaideren eskutik egin zen euskaltzain. Etxaide hau jon Etxaideren aita zen. «Ez zen abertzalea, baina oso euskaltzaille bai». *Euskera* argitalpen hura aldizkari gisa ateratzeko baimenik ez zeukatenez, liburuka egiten omen zuten, orrialdeen zenbaketa jarraituan, eta beti zentsuratik pasaturik noski.

-Orain gatozen zure omenaldiari zuzenen datorkion motibora, bertsolaritzara alegia. Gerrosteko txapelketak hasi zirenetik, zure irudia bertsozale guztian begietan zegoen. Nola izan zen txapelketen hasera hori?

-Nahiko hasera sinplea izan zen. Orduan Bizkaian bertsolariak ez zebiltzan. Gipuzkoan Basarri, Uztapide eta beste zenbait zebiltzan. Hemen Balendin Enbeita apur bat, baina ez gehiegi. Gerra aurrean izan ziren txapelketak, eta aurrerago, joan zen mendean eta mende honen lehen zatian, baziren *Lore jokoak*, bertsolariak bultzatzeko. Baina jende ikasien artean, bertsolariak ez zeuden oso ondo ikusiak, euren euskaragatik eta abar. Azkuek ere ez dut uste bertsolariak maiteegi zituenik. Aitzolek, ostera, gerra aurrean lan handia egin zuen, bertsolaritza bultzatzen. Teodoro Hernandorena bide horretatik zetorren, eta honek gerrostean bertsolariak Parisera eramane eta halako txapelketak edo demak antolatu zituen. Guk horren entzutea bagenuen, eta behin esan genuen: «Zergatik ez dugu hemen ere zerbait egiten?». Eta pent-satu eta egin.

-Errez kontatu duzu, baina ez zen hain erreza izango.

-Zaila ere ez. Bizkaiko txapelketa egitea pentsatu genuen, Bilboko Arenalean. Bertsolariak deitu eta puntu. Denak pozik etorri ziren. Lehenengo hartan ez zen eskualdekako saiorik izan.

-Baina hura antolatu egin beharko zen: propaganda, epaimahaia, gaiak, etab.

-Bai, jakina. Baina ez zen hain zaila. Epaimahaia osatzeko, Erkiaga, Aita Onaindia, Aita Martzel eta halako batzuri esan eta pozik hartu zuten.

-Eta gaiak eta abar nork egiten zuen?

-Ah, bai. Neuk, jakina! Dena neuk egiten nuen. Gaiak asmatzea ez zen hain zaila, edozer ipinita ere, dena berria bait zen. Orduan alde horretatik ez zegoen oraingo koskarik.

Orduan dena zen berria eta dena onartua.

-Eta propaganda nola zabaltzen zenuen?

-Hori ere ez zen hain zaila. Telefonogidan, herrietan *Bar* ipintzen zuten guztietara sobre bat bidaltzen nuen, eta gero eurek jartzen zuten tabernan. Jendea oso ondo enteratzen zen. Batzuren batzuk sobreari muzin egingo zioten, baina gehienek pozik jartzen zituzten kartelak euren tabernan.

-Eta baimen edo kontrol aldetik trabarik izan al zenuten?

-Hortxe ibili behar zen argi. Inoiz gertatu zitzaigun igande batean altabozak ukatu eta Arenalkada guztia etxera bidali beharra. Baina hurrengo igandean berriz egin genuen, eta jende gehiago etorri zen, ordurako altaboz kontuak ondo argituta.

-Durangoko abade karlista bat ere, Don Jose Etxeandia, horregatik sartuko zenuten epaimahaian agian.

-Bai. Hura Durangoko Santa Anako parrokoa zen. Karlista gogorra. Gerrostean abertzaleen aurka liburu bat ere idatzia zuen. Baina pozik etortzen zen epaimahaiko, eta hori pentsa dezakezu zergatik egiten genuen. Halakoak tartean zirela, agintarien susmo txarrak errezago uxatzen ziren. Egia esan, zuhurtzia pixka batekin joketzen genuelako-edo, baimen aldetik ez zen oztopo gehiegi izan.

-Bigarren txapelketa, eta gero denak halaxe, aurretik eskualdeka kanporaketak eginez burutu zenuten. Gogoan al daukazu nola izan zen hori?

-Bai. Xehetasun batzuk joanak ditut, baina lehenengo fasea eskualdeka egin genuen. Gogoan daukat Urkiolan hasi ginela, San Antonio egunean, han jende asko batzen zela-ta. Lau eskualde egin genituen: Durangaldea, Markinaldea, Busturialdea edo Gernikaldea, eta Arratia. Eta gero horietako lehen-bigarrenekin Bilboko Arenalean azkena. Bigarren hau ere Balendin Enbeitak irabazi zuen. Hirurogeian Zezen Plazara aldatu ginen eta han Mugartegik irabazi zuen. Hurrengoa Azpillagak irabaztea gertatu zen, eta gero hurrengo hirurak Lopategik. Gero txapelketen etena etorri zen, eta hurrengo Bizkaikoa oraintsuko kontua da. Han ere Lopategik irabazi zuen.

Alfontso Irigoienek batzutan geldialdiak egiten ditu, oroimena arakatzen bezala. Datak eta gauza horiek ez ditu oso gogoan. Inguruan ibili ziren pertsonen ere sarritan zalantzak agiri zaizkio, baina ibilera eta egikera eta txapelketa haien filosofia orokorra oso zehatz eta argi azalduko dizu. Eta gehien harritzen nauena, bere lanari batere garrantzirik eman gabe. Oso errez egiten omen zuen dena.

-Agian dena bakarrik egiten zenuelako errezago?

-Ez dakit. Gehien kostatu zitzaidana Gipuzkoako lehen txapelketarako Uztapide konbentzitzea izan zen. Urriaren azken astelehen batez, Uztapide Gernikan zen beste batzurekin. Egun osoan atzetik ibili nintzaion. «Nik txapelketa horretan asko gal nezake eta irabazi ezer ere ez» -esaten zidan. Hori betiko arazoa da. Orain ere arazo bera dago, zuk ondo jakingo duzunez. Baina nik ere ez nuen esten, bertsolaritzari bultzada bat eman behar zitzaiola eta abar. Baina Uztapidek ezetz eta ezetz. Nik ekin: «Gero Euskal Herri osokoa prestatu behar dugu eta bertsolaritzari indar handi bat eman behar diogu». Azkenean, aspertuta-edo, esan zidan: «Beno, beno! Jar nazazu, ba!». Eta jarri eta aurrera. Inor ez zen ausartu ez etortzen. Eibarko Unzaga plazan agian hamabost mila lagun izango ziren, denak zutik eta adi. Uztapidek berak irabazi zuen.

-«Jarri eta aurrera» esan duzu. Izenak aurretik kontsultatu gabe jarri al zenituen kartelean?

-Ba, ez naiz ondo gogoratzen nola egin nuen.

-Ondo gogoratzen ez bazara, seinalea zerrenda jarri eta kito egin zenuela.

-Ba, agian bai. Gipuzkoan orduan ezagutzen genituenak jarri nituen. Denak etorri ziren, eh? Eta jendea erruz. Hor egongo da kartela. Zortzi-hamar izango ziren. Eta gero, jakina, Gipuzkoan bertsolariak perretxikoak bezala irteten hasi ziren.

-Eta Nafarroan?

-Bai. Bizkaiko txapelketen entzutea asko zabaldu zen, eta Nafarroan horretan arazo politiko gutxiago zegoen hemen baino.

Nafarroako Diputazioan bazen «Sección del Fomento del Vasconce» saila, eta horren inguruan «Príncipe de Viana» aldizkaria. Behin Pedro Diez de Unzurrunek idatzi zidan, ea aholkulari eta puntu jartzaile egingo nuen. Eta halaxe antolatu genuen han ere, lehenbizi eskualdeka, eta gero onenekin Iruñako Gayarre antzokian.

-Eta zer ibilera egiten zenuen, zeren Nafarroako zenbait alderdi Bilbotik urrun izango ziren orduan.

-Ah, bai. Bezperan autobusa hartu eta Iruñera joaten nintzen. Han Unzurrunek itxoin eta hotelera eramaten ninduen. Biharamonean berak autoz eramaten ninduen behar zen lekura. Gauean berriz hotelera eta biharamonean autobusa hartu eta Bilbora. Han gainera milako bat-edo ematen zidaten eta pozik. Bizkaikoetan ez nuen ezer kobratzen.

Gipuzkoako txapelketen hasera Arantzazuko biltzar famatuak ekarri omen zuen. Han beste biltzar bat egitea pentsatu zen, eta herrizat Eibar hautatu zuten, Mogelen omenez. Hori tela-ta, Gipuzkoako txapelketa bertan antolatzea ondo legokeela eta halaxe hasi ziren eragiten. Hasi eta egin, eta itzel irten gainera.

-Txapelketa inguruko giroa nolakoa izaten zen?

-Jarraitzaile aldetik bikaina. Bilboko Arenala bete-bete egiten zen. Orduan ez zegoen ez telebistarik ez ezer, eta euskaldunek bazuten halako egarri gorde bat, eta zerbait euskaraz jarri ezker, jendea aisa erakartzen zen, eta bertsolaritzan bezala, txapelketa usaina izanez gero, askoz gehiago. Nafarroan ere giro handia sortzen zen, baina Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere ikaragarria izaten zen.

-Hainbeste lan-mota eta gai asmatzeko, burua ere pixka bat nekatu beharko zenuen.

-Lehen ere esan dizut hain zaila ez zela. Gauzarik sinpleenak ere berri gertatzen ziren. Gero, batez ere Gipuzkoako finalean eta Euskal Herrikoan, epaimahaikoak ere jarri genituen lanean, gaiak asmatzen eta abar.

-Eta saioen diseinua nork egiten zuen edo nola atera zenuen? Zeren gutxi gora behera orduantxe jarritako gai jartze eskemak jarraitzen du orain ere.

-Hori dena neuk egin nuen, jakina. Puntuak ipintzea eta abar, ba, tradizioetik, edo ikasita edo, halako itxura bat baneukan. Nik ez dakit neuk zer asmatu nuen. Nahiko espontaneo izan zen dena, teman, puntuak eta abar. Gero gartzelakoa Gipuzkoarren batek asmatu zuela uste dut.

-Bertsolariei asko tiratu behar al zenien, parte har zezaten?

-Ez, ez, ez! Eurek ematen zuten izena. Nik iragarri bakarrik. Bazen kasuren bat edo beste, Uztapiderena bezala, baina hori beste arrazoi bategatik zen.

-Eta protestarik?

-Orduan inork ez zuen protestatzen. Gauza berria zen, eta nik uste Euskal Herriak bazeukala horren gosea.

-Eta zuk zeuk ere bertsoan egiten zenuen. Neuk ere entzun zaitut behin baino gehiagotan. Nola ikasi zenuen?

-Ba, hainbeste ibili eta hainbeste entzunda, ergela ez denari zerbait itsasten zaio.

-Baina zuri zerbait baino gehiago itsatsi zitzaizun. Nik gogoan daukat zuk taka-taka egiten zenuela bertsoan.

-Ba, hara. Gogoan daukat bazkalondo batean neu ere hasi nintzela eta ekin.

-Aizu, baina hori hasi eta ekin beste gabe ez da egiten, eh?

-Ba, egingo nuen. Ez naiz gogoratzen. Hainbeste entzunik, teknika eta hainbat formula ere buruz ikasten dira. Eta gero aplikatu. Nik ez dakit onak ala txarrak egiten nituen, baina egin bai. Zurekin ere bai behin, Markiñan-edo, zu gartzelatik irtenda.

Gogoan daukat behin Mugartegirekin Lekeition zein saio luzea egin zuen, taberna batean. Niretzat Alfonsok bertsoan nahiko zuzen eta korrektu egiten zuen, eta bere grazia ere bazeukan. Nahiko temosoia zen gainera. Inor hasten bazen, berak segi, eta inor hasten ez bazen, bera denak tentatzen. Orain ez omen du askorik egiten, baina orduan nahiko barrabana zen horretan.

-Gogoratzen naiz behin Debara joan nintzela saio batera. Uztapide, Zepai eta Lazkao Txiki ziren. Eguna amaitzean, Zepaik: «Goazen geure tabernara afaltzera». Eta han goaz Idiazabalera. Han zebilen Frantzisko Mujika ere, bertso saio guztietara joan eta grabatzen. Milaka jaso zituen. Ikaragarri dokumentu ona osatu zuen hark. Hura ere Idiazabalgo Zepairenera. Afalondoan bertsoan hasi eta ni ere bai. Hor egongo da dena zintaren batean. Uztapide eta Zepaiz gainera, Lazkao Txiki ere han zen. Saio bat egin eta agurra. Nik ere agurra. Baina bertsolariak ez ziren konformatzen ni azkena izateaz, eta jarraitu. Eta nik ere bai. Goizeko hirurak eta Zepaik halako batean: «Ni ohera noa». Guk kantatzen jarraitu: Uztapidek, Lazkao Txikik eta nik. Halako batean nik bertso batean «Irigoien» eta «gailen» rimatu eta Lazkao Txikik: «Poto!» eta Uztapidek: «Ez! Ez da poto izan». Haiek rik noiz amaitzen edo noiz huts egiten nuen zeuden, baina ni aurrera. Halako batean baratxuri zopa. Hura jan eta segi bertsoan. Mujika dena hartzen. Eta Uztapidek: «Eguna argitu arte ez goaz». Goizeko seiretan argitzen hasi zen. Zepai jaiki zen, Elorriora joan behar zuelako. Ni harekin Elorriora, hemen autobus hartu eta Bilbora. Uztapide Mujikak eraman zuen.

-Harro etorriko zinen!

-Harro edo! Ni horretan nahiko ausarta nintzen.

-Batzuk lotsagabea esango zuten.

-Ba, ez dakit. Beharbada bai.

Alfontso Irigoien, bertsoan eta beste lanbide batzutan ere, nahiko razionala eta hotza dela irudituko zaizu. Horrek ez du esan nahi haserretzen eta gauzak bero azaltzen ez dakienik. Baina beti ere gai intelektualak edo arrazoituak. Sentimentuen berri eskatzean, zeharka edo hitz urriz erantzungo dizu, edo beste gabe aitortu:

-Sentimentua? Ez dakit, hori ez da errez jakiten. Norbere burua ezagutzea... Nik gauzak razionaltzeko joera daukat, bai.

Berezkoa. Baina beste intuizio joera bat ere bai. Sarritan intuizioari jarraitu eta azkenean arrazoi topatu dut.

-Baina zu apenas zaren sentimental.

-Sentimentala? Neurri batean, bai. Gertatzen dena dominatzen dakidala.

-Sentimentuak agertzeak erreparoa ematen al dizu?

-Orain ez hainbeste, baina lehenago bai. Ez dakit zer esan.

-Sasioan ez al zenuen maitemin zoro horietakorik izan?

-Ni lanean goiz hasi nintzen. Bizimodu gogorra tokatu zitzaidan.

Sineskaitza bada ere, nik Euskaltzaindia miseria gorrian atera nuen aurrera.

-Neskekin eta ibiliko zinen, ba.

-Ibili bai, baina ez neukan dirurik.

-Ezer deklaratu ere ez?

-Ez dakit. Ni horretan oso serioa izan naiz. Nik Libe, neure emazte hau, Salamancara joan aurretxoan ezagutu nuen. Aurreko urteetan frustrazioa besterik ez neukan.

Libe, Alfontsoek dioten «lehenengo eta azkenengo maitasuna», hor etorri zaigu kafe bana edo zer nahi dugun eskaintzera. Emakume Lekeitiar hau hizkera ireki eta gozokoa da, Lekeitiar aire osoz. Garai bateko emakumeek, -eta bere emazteak ere bai- romantizismorako joera handia daukatela dio Alfontsoek.

-Eta artea zer da? Arrazoizkoa? Sentimentuzkoa?

-Nire pinturak hor daukazu. Nire garaian baziren joera batzuk. Pintore artean antzeko gustoak genituen. Geroztik aldakuntza handiak izan dira, eta orain gauza batzuk ez ditut gehiegi ulertzen. Beharbada garai batean gelditu naiz. Hau, esaterako, gure aitaren erretratua da eta Lazaro Uriarteri asko gustatzen zaio. Ibarrolari ere nire pintura gustatzen zitzaion orduan, gero hark beste bide bat hartu du baina. Ni ere aldendu egin naiz hortik. Eskultura ere zerbait egin dut. Brontzekoa. Modernoa.

-Txapelketetako saioetan karikaturak egiten ikusi izan zaituzte, eta batzuri apenas grazirik egiten zien horrek.

-Baina nik bertsoak kantatzen zituztela, ez nuen egiten, bitarteetan baizik. Zuri ere egin nizun bat. Eta ez dago txarto. Hori egitean, burua zuri neukan eta prejuizio gabe hasten nintzen entzuten. Batek edo bestek ez zuen ondo ikusi, baina horrek ez zuen kalterik egiten, on baizik.

-Zuk misterioitsu fama ez al daukazu?

-Inork ez dit esan.

-Eta neuk esango banizu?

-Ba, ez dakit. Ni oso zerebrala naiz. Gauza guztiei buelta asko ematen diet. Semeak esaten dit: « Ah! Zuk koordinada guztiak ikusi behar dituzu ». Eta batzutan haserretu egiten zait.

Alfontsoek eta Libek seme bakarra daukate. Eneko. Mutil ederra, irribartsua. Izakeraz amaren aldekoa dirudi. Lekeitioko Isuntza taldean arraunlari dihardu. Kirolaria da, beraz. Ahal duen guztian Aulestin eta Lekeition ibiliko da eta hango airea ezagun zaio. Alfontso semearen sasoiari lan asko egina eta handiak ikusia zen. Baita Euskaltzaindian urteak egina ere. Baina ezer legezaturik ez zeukan eta pentsatu omen zuen: «Hori eten egin behar dut, bestela ez naiz miseritik libratuko». Eta hogeita hamabi urtekin batxilergoa egiten hasi zen. «Ingresua» egitera joan zenean, «Alfontso Irigoyen!» deitu eta honek eskua jasotzean, esan omen zioten: «Dónde está su hijo?». Eta Alfontsoek: «No, no. El hijo soy yo». Eta halaxe hasi eta mutiko artean egin zuen bere batxilergoa. Eta ondoren Salamancara, Filologia klasikoa egitera.

-Eh, baina artean bada hor beste zerbait. Ingresu hori egiterakoan, apaiz batek esan zidan: «Sabe usted santi-guarse?» -«Sí».- «Pues, venga». Egin nuen eta: «Vusted? No sabe!» Berriz ere egin eta berdin. Ez nenkien zer egiten nuen gaizki. Azkenean esan zidan: « Es que usted se lleva el dedo a la boca!» -berak haserre. Handik egun batzutura, Francoren nodo batean hark ere halaxe aitaren egiten zuela ikusi nuen. Eta pentsatu nuen: «Hara! Ez nauk ez dakien bakarra!». Nik uste dut hatzamarra ahora eramate hori goseak irakatsi zigula.

-Aizu, Alfontso! Egia al da zu polemiko samarra zarela? Azken urteotan nahiko zorrotz zabiltza Euskaltzaindiarekin.

-Ba, bai. Une honetan polemika hutsean nabil. Garai batean, ez gutxi kostata, purismoaren aurkako lan bat egin genuen, Severo Altube, Aita Mokoroa «Ibar» eta abar inguruan genituela. «Aingeru», «zeru», «Eliza» etahorrelako hitzak, nahizta latinetik etorri, euskal hitzak zirela, eta ez «Txadon», «Donoki», eta halako berrikeriak Horrek polemika izugarria ekarri zuen, baina aurrerapauso bat izan zen. Gaur hori inork ez du tematzen. Baina oraindik badago hor purismo bat, bestelakoa. Euskaltzaindian sekula ez da planteiatu kultur-hitzen problema behar den moduan. Eta horretan Mitxel-nari abotsa altxatu ez, baina kontra egin dion bakarra ni izan naiz.

-Abotsa zertan altxatu?

-Ba, esaterako, hark «energia» hitzarentzat «kemen» proposatzen zuen. Hura haserretzen bazen, denak isilik. Horrelako hitzak ehundaka edo milaka dira, eta haren erizpidea zen hitz horiek «ezinbestean» bakarrik hartu behar zirela. Zer da ezinbestean hartu? Mitxelena joan zen, baina antzera jarraitzen du. Eta azkenean errebelatu egin naiz. Kultur hitzak ezinbestean hartu? Aizu, barka, baina alemanek eta ingelesek grekotik eta latinetik hartzeko eskubidea badute, zergatik ez nik, era batera euskalduna eta europarra izanik? Ez dut indultorik edo bizia barkatzerik onartzen, Europar hizkuntza hain ezberdinekin hain normalki egin dutena euskaraz egiteagatik.

-Errebeldian deklaratu zaudela, beraz.

-Bai.

-Hori gogor samarra ez al da?

-Ez. Nik gizon librea izatea pentsatu dut. Eta hori ezin du edonork esan. Bakoitzak bere aportazioak egin ditzala, eta balio badute, eskertuko ditugu. Baina ezer aportatu gabe agindu?

-Zure aportazioek ba al dute harrerarik Euskaltzaindian?

-Ba, uste baino gehiago beharbada.

Eta hor uzten dugu Alfontso Irigoien,  
bere ordenagailu, liburu eta karpeta artean  
erdi galdua, atzera-aurrera ibiltzeko tarte  
handirik gelditzen ez zaiola. Bitartean, Libek  
kafea egin du, eta errebelde usaina gehi kafe  
lurrina, sudur-anforak ederki xarmatu  
zaizkigu azkenean.

*Xabier Amuriza*

### **ALFONTSO IRIGOIEN**

Diktadura aroko  
garairik txarrena  
zelarik Bilbotik jo  
zenuen arrena,  
martxan jarririk bertso  
txapelketen trena,  
hamargarren bidaiari  
Bizkaian barrena  
sugile berriekin  
ketan datorrena...  
Xistuka dakarkizu  
gure esker omena.

### **AITA SANTI ONAINDIA**

Euskal literatura,  
prosa nahiz olerki,  
nork aztertu ote du  
zuk baino hobeki?  
Emankortasunean  
apala izaki,  
omenez goraipatu  
nahi zaitugu aurki,  
aurpegiera goxo  
horrek, aita Santi,  
ohizko irribarrez  
iraun dezan beti.

*Jon Lopategi*

Euskalerriko Bertsolari Txapelduna